- Pertsona askok ikastetxean eta komunitatean aurkitzen dituzten ikaskuntza eta parte hartzearentzako oztopoak gainditzeko dituen eskola da.
- Gakoa ez da izan aurrez osatuta dagoen talde batean haurra integratzea, baizik eta haur talde baten beharrei erantzuteko ikastetxea nola antolatuko den pentsatzea.

- Gizarteratzeko printzipioan sinestea. Gizabanakoen eta taldeen arteko desberdintasunetan sinestea eta gizabanakoaren ezaugarriak, aukerak, garapen kognitibo eta afektiboak errespetatuz gizarteratzea sustatzea.

Irene Arricibitak bere Wikian (<http://didacticaeducacioninfantil.wikispaces.com/>) daukan Parrillaren testuaren arabera, hasteko, ikasgela sistema sozial gisa hartu behar da, testuinguru zabalago batean sartuta dagoen errealitate gisa. Bigarrenik, ikasgela aniztasunaren komunitate gisa hartu behar da eta desberdintasunen balio negatiboak baztertzear gain testuinguru heterogeneoetan guztiok ezberdinak garen planteamenduarekin lan egin behar dela dio. Hirugarrenik, ikasgela guztiontzako ikaskuntza-erkidego bezala planteatu behar da, ikasgelako jardueretan ikaslea ikaskuntzaren gunea eta ikaskuntza prozesuaren eraikitzailea dela kontuan izanik. Horrez gain, jarduerak ikasleen premiekin konektatu behar dute ikasitakoaren zentzua bermatuko dute. Aipatzekoa da ikaskuntza-erkidego horretarako estrategia eta multzokatze inklusiboak ere proposatu behar direla, guztiontzako pentsatutako irakaskuntzak malgutasuna exijitzen baitu curriculumaren kontzepzioan eta ikasgelan. Taldekatze heterogeneo malguak eta metodo kooperatiboak erabiliko dira beraz. Laugarrenik, ikasgela komunitate sozial gisa ikustea da, ikaslearen garapen globala bermatzeko asmoz. Bosgarrenik ikasgela laguntza komunitate gisa onartzea da, laguntza hau ikaskideen artean eman daitekeelarik.

Hezkuntza inklusiboari buruz esandako honi erantsi behar zaio azken urteetan Berriazko Hezkuntza Premia duten ikasleekin ikasgela arruntan edo ikasgela arruntetik kanpo lan egitearen eztabaida.

“Ikasleei zuzendutako laguntza ikasleari curriculumeko arloen helburuak lortzeko eskaintzen zaizkion erraztasunak dira. Ikaslearen gaitasunen garapen handiena lortzera bideratutako jarduera zehatzen multzoari ere laguntza deitzen zaiolarik.” (Trebol, 2010, 71)

Laguntza gauzatzeko moduari dagokionez, bi motatakoa izan daiteke: indibiduala eta taldekoa. Barneko zein kanpoko laguntza izanen da. Gertatzen den momentuaren arabera, laguntza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aurrekoa, aldiberekoa edota ondorengoa izango da. Espazioari dagokionez, aipatzekoa da espazio bakoitzak bere abantailak eta desabantailak izanen dituela, eta edozein izanik gure hautaketa tutore


eta laguntza irakaslearen arteko komunikazioa bermatu behar dela. Wiki berdinetik hartutako Darretxeren testuaren esanetan, badira laguntza irakasleek ager ditzaketen portaera desagoki batzuk, hala nola, kudeaketarako ardura beregain hartzea irakasle arrunta alde batera utziz, ikasleak jasotzen duen irakasteko kalitatea gutxitzea, ikaslea klaseko curriculumetik isolatzea, ikaslea berdinen taldetik isolatzea, umea estigmatizatzea⁷ eta nagusiarekiko mendekotasun-kultura sortzea. Jarrera guzti hauen gaineratik ikasleari autonomia eman behar diogula azpimarratzea besterik ez da geratzen.

Jarraian Trebolen (2010) eta Darretxeren informazioa uztartuz laguntza gauzatzeko modua biltzen duen taula ageri da.

⁷ Pigmalion efektua: "Hezitzaileek ikasleengan dauzkaten usteak edo itxaropenak neurtzeko moduko ondorioak izaten ditu. Hezitzaileak ikasleengan itxaropen handiak dituenean ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte itxaropena txikia denean baino. Itxaropen handiek Pigmalion efektu positiboa dakartzatela esaten da. Ikasleengan konfiantza gutxi izateak Pigmalion efektu negatiboa dakar" (http://eu.wikipedia.org/wiki/Pigmalion_efektua)

2.Taula. Laguntza gauzatzeko modua

Laguntza motak	Abantailak	Desabantailak	
Nola?	Indibiduala.	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen eta ikaslearen arteko harreman zuzena gauzatzen da. • Zalantza puntuabak argitzeko eta ikasleari egokitutako metodologia zehatza erabiltzeko aukera ematen du. • Erritmoa errespetatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Giza zein espazio-baliabide handiagoen beharra eskatzen du. • Irakaslearekiko dependentzia sustraitzeko arriskua dago. • Ikasgelatik kanpoko izanda, ikaslea bere taldetik aldentu daiteke. • Trebetasun sozial jakin batzuk ez dira irakasten.
	Talde handian.	<ul style="list-style-type: none"> • Gelakideekin batera, talde baten parte sentitu. • Giza zein espazio-baliabideen denbora-kostu txikiagoa suposatzen du. • Ikasleekiko elkarrekin sozialaren aukerak handitzen dira eta taldeko ikaskuntza-estrategiak eskaintzeko aukera ematen du. • Informazioa talde handi bati ematen zaionez ikasle denek informazio bera jasotzen dute eta elkar behartu eta entzunez kasi dezakete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa gaitasun guztien esku ez. • Jarrera pasiboa. • Ikaslearen bat informaziotik at.
Non?	Ikasgela barruan.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleari, taldetik aldentu gabe, arreta handiagoa eskaintzeko aukera ematen du. • Tutoreak bere egiten du egoera. • Arazodun ikasleek etekina atera dezakete, ez etiketatu. • Ikaslea testuinguruan hobeto ahokatu eta ebaluatuz. • Ikasleak ohiko gelako jarduerak guztietan parte hartzeko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza denbora gutxitu. • Adostasun eza efikazia eta kalitatea jaitsi.
	Laguntza gelan.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgela barruko laguntzaren desabantailak konpontzen ditu. • Helburu pertsonalizatuak. • Lasaitasun eta kontzentrazio giroa. • Denbora ekonomizatu. • Ohiko gelak arnasa hartu, jarraera arazoak. • Estilo eta giro desberdina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordegi zein leku plangintza zehatza eskatzen du. • Ikasleen arteko elkarlanari aukera kopurua gutxiagotu diezaioke. • Ohiko gelako haria galdu. • Bi irakaskuntzen arteko deskonexioa. • Tutoreak erantzukizuna gainetik kendu. • Etiketatua izateko arriskua. • Tutorea eta laguntza-irakaslearen arteko komunikazio falta.
Noiz?	Aurrekoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak komunikazio-arazoak aurkezten dituen haren lanak planifikatzeko egokia da. • Eskolaren ondorengo garapena errazten du. • Ikaslea seguruago eta motibatuago sentitzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaslea, eskolan landuko dena aurretik ezagututa, aspertu eta desmotibatuzko aukera dago.
	Aldiberekoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza zailtasuna agertu bezain laster zuzentzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Materialak eta jarduerak eskola egin aurretik egokitzea suposatzen du. • Gainerako ikasleen arreta gutxitu dezake.
	Ondorengoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko gelan gaia landu ondoren ikasleak dituen hutsune eta akatsak zuzentzeko. Irakaslearekin aurretiaz garatutako jarduerak edo ekintzak landu behar dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak eskola amaitu arte itxaron behar du bere zalantzak argitzeko.



5.Irudia. Inklusioaren beharra hezkuntzan

2.2. Ikastetxean esku hartzeko psikologiaren ikuskerak

Ikastetxean ikasleekin esku hartzeko, izan Berriazko Hezkuntza Premia dutenak edo ez, eredu teoriko ezberdinak aurki daitezke. Trebolan esanetan (2013), gaur egun psikoterapian gehien erabiltzen diren esku hartze eredu nagusiak bost dira: psikodinamikoa, konduktuala, humanista, kognitiboa edo ezagutzazkoa eta sistemikoa. Ikasle bakoitza ezberdina denez eta profesionalak ikasleen izaera kontuan hartuz esku hartu behar dutenez, ikuskera psikologiko bakoitzak zer esaten duen kontuan hartzea garrantzitsua da, esku hartzeko momentuan teoria bakoitzak duen eragina ikusiko baitugu honela.

Jarraian aipatzen den psikologiaren ikuskera ezberdinei buruzko informazioa Psicología-online erakundetik (<http://www.psicologia-online.com/>) lortutako informazioa. Erreferentzia horrez gain beste iturriren bat erabili bada, ikuskera bakoitzean zehazten da.

- Ikuskera psikodinamikoa edo psikoanalisiak.

Psikoanalisiak Sigmund Freud neurologo txekiarrak sortu zuen. Bere hasierako helburua jendea laguntzea zen eta nahi horrek psikoanalisiak sortzera bultzatu zuen.

Slidesharen dagoen *Psicoanalisiak* lanaren arabera, buruko prozesu inkontzientek ikertuz, psikoanalisiak giza jokabidea azaltzen du, hau da, indibiduoaren oreka

emozionalari eta ongizateari kalte egiten dioten arazoak konpontzeko bere bizitzan egin behar dituen aldaketak bilatzen laguntzen dio. Inkontzientea aurkitzean sintomak arindu egiten dira eta pertsonengan aldaketa sakona egiteko aukera sortzen da.

Psikoanalisi la maila ezberdinetatik definitzen da:

- Garuneko esanahi inkontzienteen ikerkuntza metodoa.
- Transferentziarako erlazioetan, erresistentzian eta nahi inkontzienteetan oinarritutako psikoterapia metodoa.
- Buruaren (metapsikologikoa) funtzionamenduaren gaineko teoria psikologikoko multzoa eta buru-nahasteen eta bere tratamenduaren gaineko teoria klinikoa.
- Kulturen eta jardura sozialen prozesuak ulertzeko ikuspuntu filosofiko edo orokorra.

Funtsezko hiru prozesutan oinarritzen da psikoanalisi:

- Asoziazio askea: Bezeroak burura datozkion pentsamendu, sentimendu, ideia eta produkzio mental guztiak esaten ditu, burura datozkion momentuan. Analistak ez du ezer erantzuten, pantaila edo ispilu baten eran jokatzeko du. Asoziazio honen helburua inkontzientea dena kontziente bihurtzea da. Horretarako aipatzekoa da psikoanalistaren eta tratatua den pertsonaren artean konfiantza sortzea.
- Jokabideen transferentzia eta aurkako-transferentziaren azterketa: Bezeroak esaten dituen alderdi inkontziente hauek gehitzen doaz, pixkanaka kontziente bihurtzen direlarik. Terapeutak bezeroan sortzen diren erreakzio inkontzienteak esperimentatzen ditu.
- Erresistentzien analisia: Bezeroa bere antsietatea kontrolatu nahian beti saiatuko da azpijokoak egiten eta terapeutak maniobra horiek antzeman eta ongi interpretatu behar ditu.

Freud-en oinarritzen den teknika honetan, pertsona bera da arazoa zein den ohartzen dena. Batzuetan isiluneak eta komunikazioa kontrolatzen jakin behar da, isiltasuna eta ez ahozko komunikazioa oso garrantzitsuak baitira.

- Ikuskera konduktuala.

Eredu konduktuala psikoanaliaren teoria eta praktikaren asetze faltaren ondorioz eta ikaskuntzaren psikologiaren garapenari esker sortu zen. Grimm eta Cunningham egileek terapia konduktualak ondorengo oinarritzko adierazleak biltzen dituela diote, kontsultatutako Psicología-online web orriaren arabera:

- Adierazten den jarreratik gertuen dauden jokabidezko prozesuetan zentratzen da terapia hau, konduktismo kognitiboaren kasuan izan ezik.
- Terapia orainean eta leku honetan zentratzen da, gertaera historikoei arreta gutxiago eskainiz.
- Terapia honek jarrera edo jokabide ez normala hein handi batean ikaskuntzatik datorrela dio: ikaskuntza klasikoa, operantea eta moldeatua.

Analisi funtzionala edo konduktuala deituriko diagnosi prozesuarekin hasten da terapia mota hau. Analisi konduktulak agertzen den arazoa jokabidezko kategorietara eramaten du eta arazo horiek mantentzeko aldagaiak zein diren jakin nahi du. Terapeutak bere bezeroarekin analisiaren emaitzak partekatzen ditu eta bertan esku hartzeak duen garrantziaz mintzo dira, horretarako teknika pila dituelarik. Teknika anitz horiek berauek oinarritzen diren ikaskuntzaren arabera taldekatzen dira: baldintzapen klasikoan oinarritutako teknikak, baldintzapen operantean oinarritutakoak, moldeamenduan oinarritutakoak eta autokontrollean oinarritutako teknikak.

- Ikuskera humanistikoa.

Ikuskera humanistikoa psikoanaliaren eta konduktismoaren alternatiba gisa sortzen da. Bezeroan zentratzen da, pertsona ulertu behar dela dio. Carl Rogersek 1951 urtean planteatutakoaren ildotik gaur egun ia esku hartze terapeutiko guztietan kontuan hartzen den edo eragina duen ikuskera da eredu humanistikoa. Ikuspegi humanistikoaren barruan aurki daitezke “Terapia gestaltikoa”, “Analisi transakzionala” eta “Bezeroan zentratutako psikoterapia”. Psicología-online erakundearen arabera Beristaín eta Nitela egileek ikuspegi humanistaren ezaugarriak honela laburtzen dituzte:

- Munduaren eta errealtatearen ikuskera subjektiboa da.
- Pertsona orok zuzentze eta lorpen positiboetarako berezko ahalmena du.
- Pertsona independentea da eta ekimena bere esku dago. Eredu konduktista edo psikoanalitikoaren kasuan bezala.
- Pertsona bat ulertuko dugu bere mailan jartzen garenean soilik, hau da, enpatiaren biez. Modu honetan gaitz-mentalaren kontzeptua baztertzen du, beharra duen pertsonaren ikuspuntutik jokaera guztiak normalak direla ikusiz.
- Jarduera terapeutikoa esperientziaren unean unekoa eta lekuan lekukoa da.

Trebolan (2013) esanetan, ezaugarri hauetaz aparte, eredu humanistikoa ulertzen lagunduko diguten oinarrizko kontzeptu batzuk daude:

- Oztopoak ez dira utzi behar, aurre egin behar zaie. Garapena bultzatu behar da. Oztopo bat norberaren irudi negatiboaren ikaskuntza da, onartua izan ez delako.
- Lantzen duguna etengabe landu behar dugu. Tratamendua hasi aurretik erreprimituta zeuden sentimenduekin esperimintatu behar da.
- Esperientzia eta autokontzeptuaren arteko elkarreragina. Lortzen duguna eta animoa.
- Inkongruentzia badago jokabide defentsiboa sortuko da. Organismoak bizi duenaren eta pertsonak onartua izateko egiten duenaren artean inkongruentzia badago, defentsarako jokaerak sortuko dira pertsonarengan.
- Aldaketarako mekanismoak sortuko dira, norberak bere emozioei esker garapen pertsonala lor dezan.

Eredu humanistikoan, bezeroak, kanpotik onartua sentitua izateagatik bere balore pertsonalak blokeaturik dituela kontsideratzen du. Terapian erabiltzen diren enpatia⁸,

⁸ Enpatiak terapeutak bezeroaren sentimendu eta esanahien ulermena hauteman eta komunikatzeko etengabeko esfortzuari egiten dio erreferentzia. Hiru faseetan gertatzen da: lehenik, bezeroaren adierazpenei terapeutak arreta enpatikoa eskaintzea, bigarrenik, terapeutak bezeroari enpatia espresatzea eta azkenik, terapeutaren erantzun enpatikoaren harrera bezeroaren aldetik.

baldintzarik gabeko gogoeta⁹ eta kongruentziaren¹⁰ bidez aurretik aipatu dudan prozesu hori desblokeatuko da.

- Ikuskera kognitiboa.

Ikuskera honen informazioa lortzeko, hasieran esandako erakundeaz gain, Wikipedia erakundea (<http://www.wikipedia.org/>) eta Google Sites aplikazioa (<https://sites.google.com>) erabili ditut.

Psikoterapia kognitiboa 50. hamarkadan sortu zen gizarte aldaketen eraginez. Modelo kognitiboa pentsamenduan oinarritzen da, eta pentsamenduaren bidez jokabidea aldatzeko daukagun gaitasunean. Ikaskuntza memorian erregistratutako alderdi ezberdinen ondorioz ematen da, denbora eta espazio ezberdinetan gertatu izanak axola ez duelarik.

Teoria kognitiboa informazioaren prozesuan, arazoen ebazpenetan eta giza jokaerarako hurbiltasunean oinarritzen da. Pertsonak kanpoko iturrietatik lortutako informazioa eta haien barne informazioa erabiltzen dituzte. Informazio hau jarrerari buruzko iritziak emateko erabiltzen dute.

Terapia kognitiboaren ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Metodo aktiboak erabiltzen dituzte.
 - Terapeutak zuzendari papera hartzen du.
 - Jarraitzen dituzten pausoak oso egituratuak dira.
 - Iraupen laburrekoak izateko joera dute.
- Ikuskera sistemikoa.

Familien terapiaren eboluzioarekin ematen da eredu sistemikoen garapena. Eredu sistemikoetan familia sistema gisa hartzen da, taldeko partaide bat gainontzeko partaideetatik bereizita ezin daitekeelarik ulertu.

⁹ Baldintzarik gabeko gogoeta: Terapeutak bezeroari bere sentimenduak espresatzeko aukera ematen dio autoonarpenera gertatzeko. Horretarako, bezeroa onartzen du eta bere jokaerak zuzentzea ekiditen du. Jarrera honek sentimenduen estimua ekartzen du.


¹⁰ Kongruentzia: Terapeutak bere bezeroarekin izan behar duen jarrerari egiten dio erreferentzia. Enpatia adierazteko bere sentimenduekin koherentea izan behar da terapeuta. (<http://www.psicologia-online.com> web orritik)

Ikuskera sistemikoa hezkuntza arloan aplikatzen bada, indibiduen eta testuinguruaren arteko konexioa aztertuko da, bi eremu hauen arteko interakzio eta feed-back-a kontuan hartuko duelarik.

Terapia honen estrategiarik nagusiena ekintza terapeutikoa eremu indibidualetik interakzioko eremuetara pasatzea da.

Metodo terapeutiko honek biltzen dituen elementuak ondorengoak dira:

- Identifikatutako bezeroan inplikatuz sistemaren diagnostikoa egiten saiatzen da terapeuta. Guztiekin elkarrizketak edukiko ditu.
- Estructuran eta lan egiteko moduan aldaketa txertatzea.



6. Irudia. Ikuskera psikologikoak

2.3. Garapenaren psikologia

Ikuskera psikologikoak kontuan hartzeaz gain, ikastetxean egin behar den esku hartzea zein den jakiteko, Trebolek (2010) biltzen duen gisa, funtsezkoa izanen da ikasleen hezkuntzaren eta garapenaren psikologia zein den kontuan hartzea, irakaslearen lanaren antolaketarako eta ikasleei egokitu behar zaizkien baliabideak prestatzeko.

Soto irakaslearen esanetan (2011), garapenaren psikologia pertsonen garatze prozesuan zehar gertatzen diren jokaera aldaketak (adinarekin nolabaiteko lotura izanik) aztertzen dituen diziplina da. Psikologia ebolutiboak beraz, ondorengo hiru ezaugarriak kontuan izanik, giza jokabidea du aztergai:

- Giza jokabidearen aldaketak denboran zehar.
- Aldaketa horiek izaera normatiboa edo ia normatiboa dute, jende guztiari edo gizataldeei aplikatzekoak direlako.
- Aldaketa horiek adinarekin edo bizitza aldiarekin zerikusia dute.


Adin aldaketak helduek, kultura, une historikoa, giza taldea eta ezaugarri indibidualen ondorioz ematen dira, psikologia ebolutiboak giza garapenean bereizten dituen bizitza-aldiak ondorengoak izanik:

- Jaio aurretiko aldia
- 0-2 urteak: Lehen haurtzaroko aldia
- 2-6 urteak: Eskola garai aurreko urteak
- 6-12 urteak: Lehen Hezkuntzako aldia
- 12-20 urteak: Nerabezaroa
- 20-65/70 urteak: Helduaroa
- 65/70 urteetatik aurrera: Zahartzaroa

Esandako guztia esan ondoren, Wikipedia erakundeak egiten duen gisa, aipatu behar da garapenaren psikologiak aldaketa psikologikoko prozesuak identifikatu eta deskribatzeaz gain, horien esplikazioa ematen duela, jarrerak aurreikusi eta garapena optimizatzeko asmoz.

Sotoren (2011) esanetan, garapenaren psikologiak aztertzen duen giza garapenak izaera holistikoa du, garapen biosozialaren, garapen kognitibo-linguistikoaren eta garapen psikosozialaren arteko elkarrekintzak eraikitzen baitu giza garapena.


Haurren adin tarteei eta garapen aldiari dagokionez beraz, pertsonaren garapena kontuan hartuko da. Horregatik, jarraian, eskola garaian ikasleen curriculum maila ezagutzeko eta maila hau zein adin eta garapen-unerri dagokion ezagutzeko 2-6 urte bitarteko giza garapenaren prozesu esanguratsuenak bilduko ditut. 0-6 urte bitarteko haurren garapenean ematen diren aldaketa zehatzagoak ikusteko, ikusi I.eranskina.



7.Irudia. Garapen biosoziala 2-6 urte bitartean (Trebol, 2010, 38)

“Biosozialaren baitan eta adin-tarte honetan mugimenduaren kontrola hedatzen da, eta zehazte bat gertatzen da. Hori guztia hiru alderdi nagusitan aztertzen da: gorputzaren kontrola ikasten ari dira; garunaren lehendabiziko egituraketa osatzen da eta azkenik, grafomotrizitatearen bilakaera gertatzen da.” (Trebol, 2010, 38)


Ezagutzaren garapenari dagokionez, haurren pentsamenduaren egituraketa prozesua pixkanaka ematen da, haurrek jolas sinbolikoari esker pixkanaka errealitatearen ezagutza lortzen baitute eta kausa-efektu erlazioari hasiera ematen baitiote; informazioaren prozesamendua pixkanaka heltzen doa eta hizkuntzaren garapenean ere aurrerapen handiak ematen dituzte, hitz solteak esatetik diskurtso luzeak esateko gai izatera iritsi arte.



8. Irudia. Ezagutzaren garapena 2-6 urte bitartean (Trebol, 2010, 40)

Azkenik, garapen psikosoziala legoke, norberaren ezagutza, emozioen garapena, eta ezagutza soziala eta moralitatea biltzen dituen giza garapenaren atala. Norberaren ezagutzari dagokionez, Ni-aren, beste pertsonen eta mundu sozialaren arteko ezagutzak uztartzeari esker ematen da. Garapen emozionala nortasunaren funtzionamendua orekatzeko eta ulertzeko funtsezkoak diren emozioetan oinarritzen da, eta adin tarte honetan emozioek euren buruarekin eta beste pertsonekin duten harremanarekin lotura zuzena izanen dute. Ezagutza soziala eta moralitateari dagokionez, amaitzeko, inguruko pertsonekin izaten dituzten harreman sozialak direla medio haien jokabideak ontzat edo txartzat hartuko dituzte, egitura sozialek eta

gainerako pertsonen nola funtzionatzen duten ikasten doaz beraz.



9. Irudia. Garapen psikosoziala 2-6 urte bitartean (Trebol, 2010, 42)

Sotoren (2011) esanetan, *giza garapenaren* teoria klasiko gisa Piageten teoria aurkez daiteke. Giza garapenaren egungo teoriaren artean aldiz Vigotskiren teoria legoke besteak beste. Jarraian modu labur batean bi teoria hauek azalduko ditut eta gero bi teoriaren arteko konparaketa bat egingen dut. Irakasle praktikarekin harreman zuzena duten teoriaren aurrean gaudela esan daiteke, Esarteren (2012) esanetan bi teoria hauetan pertsonen bere ikas prozesuan paper aktiboa jokatzeko baitute.

Esartek (2012) biltzen duenaren arabera, Jean Piagetek epistemologia genetikaren teoriarekin umeei pentsamendu logikoa lortzeko hainbat estadio garatu behar dituztela dio, horrez gain ezagutzaren jatorria eta garapena azaldu nahi dituelarik. II. eranskinean teoria honen azalpena ageri da, baina laburbilduz, zera esan daiteke, Piagetek pertsonen ezagutzaren garapena lau estadiotan banatzen duela eta garapen horretan umeei aurretik zituen eskemak berrantolatuz eskema berriak sortzen dituela. Piagetek jasotako kritiken artean ingurunea eta beste pertsonekin ematen den elkarreragina kontuan hartzen ez duela izateaz gain, nerabegarotik aurrera aldaketak ematen ez direla da, gaur egun helduaroan ere aldaketa garrantzitsuak gertatzen direla baitakigu.

L.S. Vigotskik aldiz, giza garapena testuinguru sozialaren barnean kokatzen du, kulturak garapenean duen eragina aztertuz honela. Haurren gaitasun psikologikoaren garapena emateko besteekin harremanetan egotea beharrezkoa dela dio. Vigotskik sortutako kontzeptu aipagarria da berehalako garapen esparrua, garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremana azaltzen baitu kontzeptu honen bidez. Teoriari buruzko informazio xehatua III. eranskinean dago.

Esartek (2012) emandako datuetan oinarrituta Piageten eta Vigotskiren teorien arteko konparaketa bat biltzen da ondorengo taulan.

3.Taula. Piaget eta Vigotskiren teorien konparaketa

		PIAGET: Teoria genetiko kognitiboa	VIGOTSKI: Teoria soziokulturala
Ezberdintasunak	Nondik sortzen da garapen psikologikoa?	- Egitura kognitiboaren barnetik. Prozesu kognitiboak barruan sortzen dira eta geroago umeak familiarekiko eta ingurunearekiko dituen harremanak moldatuz joango diren ondorioak izango ditu. - Heziketak garapenari laguntzen dio: heldutasun biologikoaren eta umearen esperientziaren arteko elkarrekintza hartzen du ardatz.	- Elkarrekintza sozialetik. - Elkarrekintza; ikaskuntza; garapena. - Harremanak; barneratzea; prozesu kognitiboaren oinarriak sortzea.
	Nolakoa da giza garapena?	- Indibiduala, endogenoa, operatiboa eta unibertuala.	- Garapen sozialaren menpekoa: exogenoa eta testuingurukoa
Berdintasunak	Imitazioa ematen al da?	Bai.	Bai.
	Garapenaren izaera	Garapena norabide bakarrekia da eta ez da finkoa.	Norabide bakarrekia eta ez finkoa.

Lizaso eta Apodakak (2008), giza garapenaren egungo ikuspegi gisa ikuspegi sistemikoa eta ikuspegi ekologikoa aipatzen dituzte besteak beste.

“Teoria etologikoak faktore biologikoak azpimarratzen ditu. Teoria ekologikoak, berriz, ingurune-faktoreak nabarmentzen ditu. Haurren garapena ulertzeko, Urie Bronfenbrenner-ek sortutako teoria ekologikoak inplikazio garrantzitsua izan du.” (Lizaso eta Apodaka, 2008, 207).


Bost ingurumen-sistematari oinarritzen da eta hurbileko pertsonen arteko

elkarrekintzak nahiz kulturaren oinarritutako eragin zabalak biltzen ditu. Ingurune-sistemen makro eta mikrodimentsioen azterketa sistematikoa egiteaz gain, ingurune-loturen arteko loturei erreparatu die (mesosistema) eta eragin sozio-historiakoak garapenean aintzat hartzea (kronosistema). Hala ere, teoria ekologikoari hainbat kritika egiten zaizkio: batetik, azken urteetako eragin biologikoei buruzko eztabaiden ondoren, oraindik ere, garapenaren oinarri biologikoei oso arreta txikia ematea, eta, bestetik, teoriak prozesu kognitiboei arreta desegokia ematea.



10.Irudia. Teoria ekologikoa

(http://www.iped.com.br/conteudo/04-80-S104/port_print.htm)




11. Irudia. Garapenaren psikologia

2.4. Ikaskuntza eta bere mekanismoak

Esku hartzeko garaian kontuan hartu beharreko beste alderdi bat litzateke ikaskuntza nola ematen den jakitea. Argi dago ikasgelan aniztasun handia izanen dugula, ikasleek daukaten ikasteko modua ezberdina izanen delako besteak beste. Profesionalek ikaskuntzaren inguruko teoria ezberdinak ezagutu ezker, ikasgelan ikaskuntza mota ezberdinak erabiliz ikasle guztien ikaskuntza prozesua bermatu dezakete.

Esarteren (2010) esanetan, ikaskuntza jarreran eta honen potentzialean ematen den aldaketa erlatiboki iraunkorra da, aldaketa bat ikasketa berri bat bezala kontsideratzeko aldez aurretik esperientzia batean oinarrituta egon behar delarik.

- Ivan Pavlov ordezkari den baldintzapen klasikoaren arabera, gizakiek eta animaliek gertakari edo estimulu baten aurrean erantzuten ikasten dute (<http://dbhokopsikologia.wordpress.com>). Erantzun hau era automatikoan baldintzatzen da. Hala frogatu zuen txakurrari okela ematen zitzaion unean ezkila bezalako estimulu neutro bat sartzean:




12.Irudia. Ivan Pavloven baldintzapen klasikoa

Baldintzapenaren klasikoen bidez erantzun automatikoak ikasten dira. Baina gizakiok ikasten ditugun erantzun guztiak ez dira automatikoak. Pertsonak ekintza eta jokoera asko nahita egiten ditugu eta askotan pertsona bakoitzak erabakitzen du nola jokatu.

- Baldintzapen operantearen ordezkaria den B. F. Skinnerrek bere esperimentuak

egiteko kaiola baten moduko kaxa berezi bat sortu zuen. Egindako esperimientuen ondorioz (<http://psikologiahezkontzan.blogspot.com.es>), ikasitako erantzun baldintzatua ez dela soilik mekanikoki sortzen ikusiko du. Animaliek ekintza errepikatuko dute ondorio positiboa dutelako. Esperimentu hauetatik abiatuz, Skinner-ek ondorioek jokabidean duten eragina aztertu zuen eta baldintzapenaren operantearen legeak formulatu zituen:


- Jokabidearen ondorioa errefortzu bada, jokabidea errepikatuko da.
 - Jokabidearen ondorioa zigorra bada, ez da errepikatuko.
- Ikaskuntza sozialako ordezkaria Albert Bandura litzateke, eta konduktismoaren eta kognitibismoaren artean kokatuko genuke. Esartek (2010) dioenez, Bandurak, gizakiaren jarrera etengabeko elkarreraginean dauden hiru faktore ezberdinen interakzioarengatik sortzen dela dio. Hiru faktore horiek gizakiaren jarreran eta ikasteko moduan eragina dute.



13.Irudia. Ikaskuntza sozialean eragiten duten faktoreak

Ikaskuntza soziala behaketaren ondorioz sortzen den ikaskuntzan zentratzen da eta beste pertsona baten jarrera imitatuz lortzen den ikaskuntzaren alde egiten dute. Ikaskuntza prozesuan beraz behatzen den pertsona (modelo) legoke. Ikaskuntza eraginkorragoa izanen da baldin eta modelo honen funtzionatzeko era baliagarria baldin bada eta modelo zerbait positiboa edo erakargarria baldin bada. Ikasleak zentzumenen bidez informazioa prozesatuko du eta ikasi duena gordeko du beste momentu batean ikasitakoa erreproduzitu ahal izateko. (<http://socialpsychology43.lacoctelera.net>)

- Azkenik ikaskuntza kognitiboari aipamena egitea ongi legoke. Ikaskuntza mota honen barruan *garapenaren psikologia* deituriko atalean aipatu ditudan Piaget eta Vigotski leudeke.



14.Irudia. Ikaskuntza eta bere mekanismoak

2.5. Howard Gardner eta adimen anitzen teoria

Ezagutzaren garapenari loturiko hainbat egileren ekarpenen artean Howard Gardnerrek adimen anitzen teoria legoke.

Gardnerrek proposatzen duen adimen-eredua plurala da, hau da, adimena ez da gaitasunen batasun gisa ulertzen, baizik eta adimen desberdin, independente eta askotarikoen multzo gisa.

Seguraren esanetan Gardnerrek honela definitzen du inteligentzia: "Inteligentzia arazoak ebazteko eta produktu berriak sortzeko hezkuntzaren bidez garatu behar den potentzial genetikoa da." (Segura, 2005, 20)

Hau da, inteligentzia hezkuntzarekin garatzen den potentzial genetiko bat dela dio, arazoak ebazteko eta produktu berriak sortzeko balio duena. Gizakia adimen guztiekin jaiotzen da eta familiak, eskolak eta gizarte-inguruneak bideratuko du adimen horien egituraketa berezia gizaki bakoitzarengan. Hezitzaileek ikasleen adimen potentziala hobetu dezakete. Seguraren (2005) esanetan, musikarako gaitasun handirik ez badugu adibidez, musika kontuetan ez dugu gauza handirik eginen, baina gaitasuna baldin

badugu eta inork ez badigu hezten, gaitasun hori galdu egingo da.

Inteligentzia hori, zati batean genetiko dena eta bestean lortu egiten dena, zortzi alor ezberdinetan agertzen dela dio Gardnerrek. Zortzi inteligentzia horietatik hiru edo lau inteligentzia garaturik izatea litzateke normalena, eta gainontzeko hiru edo lauetatik garapen baxua edo garapenik eza.

Jarraian ageri den informazioa Seguraren (2005), Punsetek rtve kanalean Gardnerri egindako elkarrizketaren (<http://www.rtve.es>), Wikipedia erakundearen eta Monografias erakundearen (<http://www.monografias.com>) datuak uztartuz egindako azalpena.

- Inteligentzia linguistikoa. Ama hizkuntza ongi erabiltzeko gaitasuna da. Norbaitek esan nahi duen hori argi eta garbi adierazteko gai izatea.
- Inteligentzia matematikoa. Erlazio abstraktuak ulertzeko gaitasuna da. Zientzialarien, matematikarien eta filosofoen inteligentzia da.

Hirugarren inteligentziara pasa baino lehen, aipatzekoa da Segurak (2005) Howard Gardnerren hitzetan esaten duena, hau da, Gardnerren iritziz Hezkuntza Sistemak praktikoki lehenengo bi inteligentzia hauek direla gehien lantzen edo kontuan hartzen diren inteligentziak. Hizkuntza eta matematikaren irakaskuntza ez dira irakaskuntzaren nukleoa HH, LH, DBH eta Batxilergoan soilik, Unibertsitatean ere zientzietako graduak eta letretako graduak bereizten baitira.

Seguraren esanetan (2005), irakaskuntza hizkuntzan eta matematikatan zentratzeko erabaki honek etorkizuneko arrakasta neurtzen duen Koefiziente Intelektualaren (KI) porrota azaldu dezake. XX. mendearen hasieran Binetek inteligentzia neurtzeko asmatu zuen sistema ia ia eskusiboki matematikoak eta hizkuntzakoak diren problemak ebazpenean oinarritzen da. Bineten Koefiziente Intelektuala (gero Terman, Weschler eta beste batzuen ondorioz osatua izango dena) problemak ebazpenetan adierazten zen inteligentzia haurraren adin errealekin zatituz eta emaitza hori 100 zenbakiaz biderkatuz lortzen den emaitza datza.

Urteak igaro ahala, proba hauek jende gehiagori egin zitzaizkien, eta KI altua zuten pertsonak ikasketetan arrakasta izan arren bizitzan arrakastarik ez zutela ikusi zen, batez ere gaitasun sozialei dagokionez; beste pertsona batzuk KI intelektual apala izanik, eguneroko bizitzan enpresari, kazetari, politikari, musikari edo kirolari gisa

gailentzen zirelarik. Gardnerren teoriak oso ongi azaltzen du egoera: bi inteligentzia neurtzen ziren soilik, baina bizitzako arrakasta inteligentzia ezberdinen arteko konbinaketa orekatuan datza, zortzi inteligentziak kontuan hartzean.

Gainontzeko inteligentziekin jarraituz, ondorengoa aipatu behar da:

- Inteligentzia espaziala. Espazioaren mapa mental bat egiteko eta bertan kokatzeko gaitasuna da. Orientatzeko gaitasuna eta espazioan gorputzak "ikusteko" gaitasuna.
- Inteligentzia zinetikoa edo gorputzeko inteligentzia. Norberaren gorputza maneiatzen jakiteko talentua da. Oinez ibiltzean, korrika egitean, dantzatzean, kirola praktikatzean eta edozein eginbehar egiteko garaian eskuak ongi maneiatzean datza.
- Inteligentzia musikala. Musika ulertu eta gozatzeko, eta ahotsez nahiz instrumentuz musika sortzeko inteligentzia da. Argi dago instrumentu bat jotzeak inteligentzia musikalaz gain inteligentzia zinetikoa ekarriko duela, batez ere teknika maila ona garatzeko orduan.
- Inteligentzia naturala edo ekologikoa. Gizatiarra ez den naturarekin sintonizatzeko (animaliekin, zuhaitzekin, itsasoarekin eta mendiekin), berau ulertzeko eta katalogatzen jakiteko gaitasuna da.
- Inteligentzia intrapertsonala. Norberak bere burua ulertu, kontrolatzen jakin eta motibatzen jakiteko gaitasuna da. Ez da batere lan erraza geuk geure burua ulertzen jakitea, ez eta nolakoak garen jakitea, ezta momentu zehatz batean zer sentitzen ari garen jakitea. Egoera zailetan, geure burua kontrolatzea asko kostatzen zaigu. Eta eguneroko lan eta errutinarentzat, geure burua motibatzen jakitea izugarritzko dohaina da.
- Inteligentzia interpertsonala. Besteen lekuan kokatzeko eta besteekin ongi erlazionatzeko inteligentzia da. Inteligentzia intrapertsonala dela esan daiteke, baina kasu honetan besteei zuzenduta egongo litzatekeelarik: besteei ulertzen jakitea, kontrolatzen laguntzea, motibaturik ez daudenean motibarazten jakitea.

Inteligentzia guzti hauek hurrekin erlazionatuz gero ondorengo taula osatu daiteke:


4.Taula. Howard Gardnerren inteligentzia anitzak eta haurrak

Saila	Nabarmetzen da /hobea da	Gustatzen zaiona	Hobe ikasten du
Linguistikoa	Irakurketan, idazmenean, istorioen narrazioan eta daten oroimenean. Hitzen bidez pentsatzen du.	Irakurtzea, idaztea, istorioak kontatzea, hitz egitea, memorizatzea eta puzzleak egitea.	Hitzak irakurtzen, entzuten eta ikusten, hitz egiten, idazten eta eztabaidatzen.
Matematikoa	Matematikan, arrazoiketan, logikan eta arazoen ebazpenean.	Arazoak ebaztea, kolokan jartzea, zenbakiekin lan egitea eta esperimentatzea.	Pausoak eta erlazioak erabiliz, sailkatuz eta gauza abstraktuekin lan eginez.
Espaziala	Mapen irakurketan, grafikoetan, puzzleekin, gauzak imajinatzen eta irudikatzen.	Diseinatzea, marraztea, eraikitzea, sortzea eta marrazkiak aztertzea.	Marrazkiekin lan eginez, koloreak irudikatuz, marraztuz eta kontzeptu mapekin.
Zinetikoa edo kinestesikoa	Atletismoan, dantzan, antzerkian, eskulanak egiten eta tresnen erabilpenean.	Mugitzea, gauzak ukitzea, hitz egitea eta lengoai korporala.	Ukituz, mugituz eta gorputz sentazioen bidez informazioa prozesatuz.
Musikala	Abesten, soinuak antzematen, melodiak gogoratzen eta erritmoan.	Abestea, tresna bat jotzea eta musika entzutea.	Erritmoekin, melodien bidez, abestuz eta musika entzunez.
Naturala	Natura ulertzen, desberdintzen eta flora eta fauna identifikatzen.	Naturarekin parte hartzea eta naturaren elementuak bereiztea.	Ingurunea landuz, izaki bizidunak esploratuz eta naturako gaien bidez ikasiz.
Intrapertsonala	Bere burua ulertzen, bere ahulguneak eta indarguneak ulertzen eta helburuak ezartzen.	Bakarrik lan egitea, hausnartzea eta bere interesak jarraitzea.	Bakarrik lan eginez, bere erritmora, bere espazioa izanez eta hausnartuz.
Interpertsonala	Jendea ulertzen, liderra izaten, antolatzen, komunikatzen eta arazoak ebazten.	Lagunak izatea, jendearekin hitz egitea eta jendearekin elkartzea.	Konpartitzen, konparatuz, erlazionatuz eta elkarrekin lan eginez.

“Nahiz eta Gardnerren teoria eskolari zuzendua ez egon, bere argitalpen ia guztietan aipatzen du eskola. Berau, giza ezagutzak arazoak konpontzeko eta produktuak sortzeko erabiltzen dituen trebetasun anizkunak aurkitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko leku aproposa dela dio. Gardnerren ustez, ez du zentzurik ikasle guztiek modu berdinean ikas dezaten ahalegintzeak, ikasteko estilo ezberdinez, adimen mota ezberdinez eta irakasteko modu ezberdinez dakiguna jakinez gero. Ikaslearen gaitasunetatik abiatu eta haren alderdirik

indartsuenak aprobetxatuz gero, irakasgai berdina aurkezteko era desberdinak erabil ditzakegu ikaslearen ikaskuntza erraztuz. Hori guztia HPB dituzten ikasleentzat aplikagarria da guztiz.” (Trebol, 2010, 29)

Irakaskuntza indibidualizatu bati ekin behar zaio beraz, ikasle guztiek gaitasun eta interes berdinak ez izateaz gain, guztiek modu berean ikasten ez dutelako. Irakaslea beraz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko kudeatzaile edo laguntzailea izanen da.



15.Irudia. Adimen anitzen teoria

2.6. David Ausubel eta ikaskuntza esanguratsua

Ikaskuntza esanguratsuaren azalpen labur bat ematea garrantzitsua da, ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragina baitu. Teoria hau Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen esku hartzeko garaian aplikagarria izanen zaigu, ikasleek euren aurre ezagutzei esker ezagutza berriak lortzen baldin badituzte eta guzti hau ikuspuntu funtzional batetik egiten bada, haurren autonomia bultzatuko izango da eta ikasleak ikaskuntza prozesuan gusturago sentituko dira, ikasten ari diren hori baliagarria zaiela ikusiko baitute.

Trebolen (2010) esanetan, ikaskuntza esanguratsua aurreko ezagutza batzuetan oinarrituta gizabanakoak bere interes eta beharrekin erlazionatutako hainbat ezagutza

eskuratzeko prozesu bat da. Teoria konstruktibisten barruan kokatzen den ikaskuntza mota hau aurretik dakigunaren gainean eraikia eta erlazionatua dagoenez, ez da ahazten, eta menderatzen dugunez, erabiltzeko gai gara.

Wikipedia erakundeak David Ausubeli buruz esaten duenaren arabera, ikaskuntza esanguratsua eman dadin bi dira gutxieneko bete beharrak. Batetik, irakaskuntzako materialak berez esanguratsuak izan behar dira, hau da, materialeko atalak euren artean logika baten bidez erlazionaturik egon behar dira. Bestetik, materiala potentzialki esanguratsua izan behar da ikaslearentzat, hau da, ikasleak materialarekin erlazionatu ahal izateko ezagutzaren estrukturak eduki behar ditu. Horrez gain, Trebolek (2010) beste baldintza bat aipatzen du: ikasleak ikasi nahi izatea edo motibatuta egotea. Ausubelek dio kontzeptu berri baten ikaskuntza emateko beharrezkoa dela kontzeptu berriaren eta dagoeneko ikasleak buruan duen ezagutza orokor baten artean zubi kognitiboak eraikitzea. Zubi honek aurre antolatzaile izena hartzen du eta asimilazio prozesua errazten du. Ausubelentzat asimilazioa, Wikipedia eta Euskonews erakundeen (<http://www.euskonews.com>) arabera, pertsona batek ezagutzen dituen kontzeptuen artean ezartzen dituen harreman hierarkikoetan oinarritzen da. Ikaskuntza esanguratsuan beraz, ezagutza berriak ikasleen estruktura kognitiboan eransten dira betirako. Hori ikasleak ezagutza berriak aurretik jaso dituen ezagutzekin erlazionatzean lortzen da, hau da, sare edo kontzeptu mapa moduan antolatzen dira. Interakzio honetan, bi prozesu psikologikoen parte hartzen dute, alde batetik ezagutza berrien asimilazioak eta ezegonkortasunak, eta bestetik egokierak; era honetan ezagutza garatzen dute, objektu fisiko zein sozialekin elkarrenerginen dutelako, eta horrela egitura kognitiboetan barneratzen dira.


Trebolek (2010) esanetan ikaskuntza esanguratsuak irakasleari ikasleen abiapuntua zein den jakitea eskatzen dio, hau da, ikasleen aurre-ezagutzak, akats kontzeptualak eta kontzeptu inklusiboak zein diren jakitea. Horretarako irakasleak aurre ebaluazio bat eginen du. Behin datu hauek guztiak edukita, ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko, ondorengo estrategiak proposatzen ditu Trebolek (2010):

- Ikasten ikastea: era autonomo eta independente batean ikasten irakatsiko diegu, horrek ikasten denaren gaineko hausnarketa egitea eskatzen duelarik.
- Oinarrizko prozesu kognitiboak landu behar dira.

- Aurre-ezagutzak zein diren kontrolatu behar dugu.
- Kontzeptu-mapak erabiltzea estrategia bat izan daiteke, kontzeptu-mapetan informazioa modu labur batean adierazten baita.

Modu honetan ikaskuntza esanguratsua gertatu dela esan daiteke baldin eta gure jarrera aldatu baldin bada, esanahiak erlazionatzeko gai baldin bagara eta ikasitakoa erabiltzeko gai bagara.

Ikaskuntza beraz, orekaren teoriaren arabera ematen da, hau da, hasieran dago, gizabanakoak ezagutza batzuk dituelako. Hortik abiatuta, arazo bat planteatzen zaio eta horrek desoreka edo frustrazioa sorrarazten dio gizabanakoari. Modu honetan, erronka horri konponbide bat ematen dio eta berriz oreka lortzen da.



16. Irudia. Ikaskuntza esanguratsua

2.7. Teknika psikologikoak

Teknika psikologikoei esker ikasleentzako ikaskuntza prozesua bermatzeaz gain haien motibazio, interesa, inklusioa eta arreta indartuko dira. Erabiliko diren teknikak ikasleentzako hezkuntza etapan ezarritako oinarritzko gaitasunak lortzeko teknika

eraginkorrak izango dira. Aipatzekoa da ikasleak duen premiaren arabera teknika batzuk edo beste batzuk erabiltzea egokiagoa izanen dela eta teknika aplikatzen den uneak ere eragina izango duela.

Esarteren esanetan (2013), teknika psikologikoak aplikatzeko momentuan, beti argi eduki behar da zein den hasierako egoera eta noraino iristea nahi den, bitarteko pausuak zehaztu behar izateaz gainera. Bitarteko pausu horietan erreforzatzaile positiboak¹¹ eta erreforzatzaile negatiboak¹² erabiltzea da ohikoena.

Olivares, Macía, Rosa eta Olivares (2013); Esarte (2013) eta Google Sitesen CREENAKo jokabidearen ataleko web orriaren esanetan, jokabide arazoak dituzten ikasleekin erabiltzeko teknikak bi motatakoak izan daitezke: jokabide mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak alde batetik, eta jokabidea desagertzeko teknika operanteak bestetik. Jarraian aipatzen diren teknikak eta haien inguruko azalpena aipatu berri ditudan hiru erreferentzia horietako informazioa uztartuz lortu dut.

Jokabidea mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak ondorengoak dira:

- Moldeamendua. Subjektuaren eguneroko jokabideen artean ez dauden jokabide konplexuentzat erabiltzen da eta bere helburua errefortzu positiboa erabiliz jokabide baten garapena sustatzea da. Eman beharreko pausoak erreforatzeko kitzikatzaileak erabiliko dira eta pausu bakoitzaren tamaina eta hori lortzeko denbora zehaztu behar dira. Lortzea nahi dena eta eskatzen zaiena orekatua egon behar du. Ondoz ondoko hurbiltzeen bidezko ikaskuntza da, amaierako erantzunari nabari diren hurbiltzeak erreforzatuko dira. Iraupen luzeko teknika da eta aplikazio eremua hizkeran, idazkeran eta garapen kognitibo motela duten kasuetara zehazten da gehienetan.
- Kitzikatzaile edo zirikatzaileak. Erantzun baten agerpenean laguntzen duten erreforzatzaileak dira. Mota ezberdinetako kitzikatzaileak daude, hala nola, hitzezkoak, keinuzkoak, ingurunekoak eta fisikoak.
- Desegitea. Kitzikatzailearen erabileraren bitartez ezarri den jokabide hori

¹¹ Zerbait ondo egiten dugunean jasotzen dugun sari positiboari deritzo. Esaterako, etxerako lanak ondo egiterakoan sari bat jasotzea.

¹² Zerbait ondo egiterakoan gustatzen ez zaigun zerbait kentzen digutenean ematen da. Adibidez, azterketa gairak egitean etxerako lan gutxiago egitea.
(<http://hezkuntza-irakaskuntza.blogspot.com.es/2011/11/konduktismoa.html>)

mantentzeko laguntzak pixkanaka kentzea da helburua. Hori egiteko bide ezberdinak daude: kitzikatzaileen intentsitatea gutxituz, kitzikatzaile batetik bestera denbora tartea luzatuz eta laguntza pixkanaka erretiratuz.

- Kateatzea. Jokabide konplexuak oinarritzokoagoak diren jokabideetan banatzen dira, lanketa errazagoa izan dadin. Helburuak kateatuko dira helburuen konplexutasuna kontuan hartuz.
- Orokortzea. Estimulu batzuk antzekoak diren beste estimulu batzuekin erlazionaturik dauden bezala, erantzun bat erreforizatzean antzeko erantzunak sortzeko probabilitatea handitzen da.

Jokabidea desagertzeko teknika operanteak ondorengoak dira:

- Desagertzea. Jokabide bat desagertzeko ez dugu erreforzatu behar, haurrak atentzioa ez bereganatzeko jokabide desegokiak ikusi ez dituzunarena egitea izan daiteke aukera bat.
- Errefortzu diferentziala. Errefortzuaren aplikazioaren menpe dago eta jokabide desegokiak eliminatzeko prozedura konstruktiboen erabileran datza. Mota ezberdinetakoak izan daitezke, lehenengoa, haurrak jokabide desegokia denbora luzez egiten ez badu errefortzu positiboa ematea. Bigarrena, haurrak egiten dituen jokabide desegokien alternatibak erreforzatzea.
- Zigorra. Zigor negatiboan oinarritutako prozesuak bi dira, erantzunaren balioa eta denbora kanpoan. Erantzunaren balioa deituriko teknikarekin jokabide desegokia agertzean modu kontingente batean haurrak lortua zuen errefortzu positiboa kentzean datza. Fitxen ekonomiarekin batera eramaten da askotan. Denbora kanpoan deituriko teknikan aldiz, errefortzu positibo bat epe konkretu batean lortzeko aukera galtze kontingentea gertatzen da. Umeari berari buruz zer espero den eta arauak zein diren azaltzen zaizkio abisu bakarraren ondoren DK aplikatu ahal izateko. Estimulantea ez den inguru batean erabiliko da eta ikasleen adinaren arabera denbora luzeagoa edo laburragoa egongo da kanpoan. Hiru DK mota daude: aislamendua edo subjektua beste leku batera lekualdatzea, bazterketa edo umea leku berean baina besteen kontakturik gabe egotea eta azkenik ez baztertua edo umea leku berean dago eta kontaktua

partziala da.


- Gainzuzenketa. Zigor positiboa da. Jarrera desegokien ondorioak zuzendu nahi ditu teknika honek sortutako mina konponduz, gauzen hasierako egoera hobetuz edo jokabide egoki bat errepikaraziz. Jokabide desegokia agertu eta momentuan aplikatu behar da eta ikasleak gauzak konpondu bitartean ez du inolako goraipamenik ez hitz negatiborik jasoko.
- Fitxen ekonomia. Fitxetan oinarritutako erreforzamendu sistema da, indibidualki edo taldean erabili daitekeena. Ezartze faseaz eta desagertze faseaz osaturik dago. Ezartze faseari dagokionez, erreforzatu behar diren jokabideak identifikatu behar dira eta subjektuari egokituak dauden fitxa, puntu, gometxa edo dena delakoak prestatu behar dira, beti ere eramateko errazak izan behar dira, balioa azkar ulertu behar zaie eta ez dute irakaslearentzat lan estra handiegia suposatu behar. Horrez gain, fitxengatik trukatu diren errefortzadoreak definitu behar dira eta penalizazio sistema nahiz estrak lortzeko sistema ezarri behar dira. Erregistro orri bat ere eginen da, guztia zehatz-mehatz bertan biltzeko. Desagertze fasean aldiz, fitxak gradualki kenduko dira horretarako kitzikatzailearen intentsitatea eta denbora moldatzen joanez.
- Kontigentziaren kontratua edo kontratu konduktuala. Jokabidea aldatzea nahi duten pertsonen artean idatziz egiten den dokumentua da. Bertan egin beharreko ekintzak azaltzen dira eta honi dagozkion ondorioak ere bai. Jokabideak zehazten dituen eta akordio batera alegatzen diren bi aldeen arteko negoziazio bat da. Kontratuan estra bezala kodifikatu daitezkeen bonoak agertu behar dira ere.

Aipatutako teknikez gain, badira jokabideari eragiteaz gain irakurketa-idazketa prozesuan eta beste prozesu batzuetan aplikagarriak izan daitezkeen teknika gehiago, hala nola:

- Jarrera agresiboak gutxitzeko teknikak: dortokaren teknika.
- Desaktibazio somatikorako estrategiak. Arnasketa eta erlaxazioa.
- Modelamentua. Modelo kognitibo-konduktualaren barruan kokatzen da

modelamentua eta Banduraren ikerketetan oinarritzen da. Imitazioaren bitartez gertatzen den ikaskuntza honetan oinarritzko lau prozesu daude: arreta jartzea, buruan gordetzea, erreproduzitzea eta motibazioa.

- Beldurtzen gaituzten estimuluaren lanketan zentratutako estrategiak. Esposizio graduala.
- Gaitasun sozialetan entrenatzeko teknikak. Asertibitatea.
- Berrestrukturazio kognitiboa gertatzeko estrategia eta teknikak. Ellis eta Becken teoriak.
- Aurre hartzeko gaitasunetan entrenamendua: atoinstrukzioak, estresaren inokulazioa eta antsietatearen maneia.
- Arazen ebazpenetan entrenatzeko estrategiak.



17. Irudia. Teknika psikologikoak eta haien onurak

2.8. Hezkuntza inklusiborako antolakuntzarekin eta curriculumarekin zerikusia duten neurriak, aniztasunari erantzuteko neurriak

Ikaslearen eta ikastetxearen arteko elkarreragina aztertu behar dira ikasleak dituen beharrei erantzuna emateko. Izaren arabera (2012) aniztasunari erantzuna emateko maila ezberdinak daude:

- Ikastetxean: Aniztasunari erantzuteko plana.
- Gelan: Gelako programazioak.
- Ikaslea: Gaitasun, beharrian, interes eta heltze-erritmo ezberdinei egokitzen zaizkien neurriak. Curriculum Egokitzapen Indibiduala ere.

Hezkuntza-arretarako neurriak ere ezberdinak izan daitezke. Ondorengoa da Izak (2012) egiten duen proposamenaren eskema:

Marrodán eta Balebonak (2012) Izak egindako sailkapenez gain, Hezkuntza Sistemari ikasleen hezkuntza-beharrei aurre egiteko erantzun ezberdinak daudela diote. Aditu hauek aniztasunari erantzuteko egiten duten neurrien proposamena IV. eranskinean biltzen da.

2.8.1. Curriculum Egokitzapenak

Atal honi dagokion informazio guztia Izaren (2012) eta Marrodán eta Balebonaren (2012) erreferentzietatik ateratakoa da.


Curriculum egokitzapena aniztasunari erantzuna emateko neurrietako bat da. Ikasle talde bati edo ikasle zehatz bati zuzendurik egon daiteke eta ikasleen premiei hezkuntza erantzunak emateko asmoz, curriculum osagaiei buruz erabakiak hartzeko prozesua da.

Curriculum egokitzapen mailei dagokionez, aipatutako bi erreferentzia iturrien datuak bat eginez ondorengoa da lortu daitekeen informazioa:

5. Taula. Curriculum egokitzapen mailak

Maila	Egokitzapen mailak	Hartzaileak	Egileak	Erabakiak
1	Curriculum ofiziala eta dekretuak. (Estatuarenak eta autonomikoak)	Ikasle guztiak	Administrazioa	Behar diren neurriak hartzeko malgutasuna izan du, egokitzapenak egiteko abiapuntua da.
2	Curriculum ofizialaren zehaztapena ikastetxerako. (ICP)	Ikastetxeko etapa desberdineko ikasle guztiak.	Ikastetxeek eta etapa nahiz ziklo ezberdinetako taldeek, zikloetako proiektuetan.	Ingurune, ikastetxe eta ikasleen ezaugarri eta beharretara curriculumak egokitu.
3	Gelako programazioa	Taldeko ikasle guztiak	Ikasleen zailtasun ezberdinak kontuan hartuz irakasleak egiten du gelan.	ICPa taldeko ikasleen ezaugarrietara egokitu.
4	Atal didaktiko bakoitzaren egokitzapena	Ikasteko zailtasunak dituzten taldeko ikasleak.	Tutorea edo ikasle hauekin lan egiten duten profesionalak.	Hezkuntza indartzea, egokitzapen metodologikoa.
5	Curriculum Egokitzapen Indibiduala	Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleak.	Tutoreak, irakaskuntza taldeak eta espezialistek egiten dute orientatzailearen aholkuekin.	Curriculumeko sarrera elementuak edo oinarrikoak egokitu.

Curriculum egokitzapenen esanguragarritasun maila ezberdina izan daiteke. Curriculum batzuk egokitzapen ez esanguratsuak izanen dituzte, hau da, osagai bati edo gehiagori eragiten die, baina erreferentzia gunea ikaslea eskolatua dagoen zikloa da. Beste curriculum batzuk ordea, egokitzapen esanguratsuak edo garrantzitsuak izanen dituzte, erreferentzi gunea ikaslea eskolatua dagoen zikloa edo etaparen bestelakoa izanik. Aipatzekoa da, ikasle batek arlo batean egokitzapen esanguratsua izan dezakeela eta beste arlo batean egokitzapen ez esanguratsua.



18.Irudia. Ikasleen premien eta erantzunerako neurrien arteko lotura (Marrodán eta Balebona, 2012, 29)

Egokitzapena mota batekoa edo bestekoa izanda ere, curriculum egokitzapenen helburua ikasleen hezkuntza premiei erantzun bat ematea da. Helburu hauek lortzeko ondorengo printzipioak hartu behar dira kontuan (Marrodán eta Balebona, 2012, 37):

- Normalizazio printzipioa. Curriculum egokitzapen guztien erreferentzia curriculum arrunta da.
- Printzipio ekologikoa. Curriculum egokitzapenak ikasleen hezkuntza-premiak testuinguru hurbilenera moldatuko ditu: ikastetxea, ingurunea, ikasle taldea eta ikaslea bera hurrenez hurren.
- Esanguragarritasun printzipioa. Osagaien egokitzea continuum batean egingen

da. Hasteko curriculumeko sarrera elementuak moldatuko dira eta gero, beharrezkoak izanez gero, curriculumeko oinarritzko osagaiak.

- Errealitate printzipioa. Planteamendu errealistak egingo dira, zer lortu nahi dugun eta ditugun baliabideak kontuan hartuz.
- Parte hartze printzipioa. Erabakiak hartzeko momentuan eta prozesu osoan adostasuna bilatuko da, bai tutorearen eta baita BHP duten ikasleekin lan egiten duten profesionalen artean. Hartutako erabakiak ikasleen dokumentuetan adierazi behar dira.
- Printzipio sistematikoa. Curriculum egokitzapenentzat hartzen diren erabakiak malguak izan behar dira, baina egokitzapenean erabiltzen diren metodologiak eta bertan hartutako erabakiak mantendu egin behar modu sistematiko batean.
- Printzipio sistemikoa. Parte hartzaile guztiak ikasleen hezkuntzara bultzatzen ditu, bakoitza bere neurrian.

“Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI) curriculumetik abiatuz ikasleen hezkuntza beharrak asetzeko egiten den hezkuntza erantzunaren diseinua eta garapena da.” (Calvo eta Martínez, 1999, 36)

CEIek ikasleen eskolatzeari, irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren hobekuntzari, curriculumeko proposamenari eta baliabideei eragiten diete.

CEIak beraz, ikasle jakin baten hezkuntza premiei erantzuteko asmoz curriculumeko sarrera elementuetan edo/eta oinarritzko elementuetan egiten diren aldaketak dira. Egokitzapen hauek antzeman diren hezkuntza premien arabera curriculum arrunta egokitzeko aukera ematen dute oinarritzko gaitasunen garapena bultzatzeko asmoz. Horretarako curriculum osagai batzuei lehentasuna eman, edo elementu batzuk ordezkatu, aldatu edo deuseztatuko dituzte. CEIak egiteko beti curriculum arruntetik abiatu behar da eta egokitzapen orokorreari emanen zaie lehentasuna banakakoen aurretik, horrela lehenik curriculumeko sarrera elementuak aldatuko direlarik eta beharrezkoa baldin bada curriculumeko nahitaezko elementuetan aldaketak egingen direlarik gero. Ondorengo egokitzapenak ematen dira:

- Egokitzapenak sarrerako elementuetan. Curriculumaren garapena ahalbidetzen dutenak dira: giza baliabideak, bitarteko tekniko eta materialak, antolakuntza eta elementu hauen optimizazioa.

6.Taula. Egokitzapenak sarrera elementuetan

Egokitzapenak sarrera elementuetan	
Egokitzapenak giza baliabideetan eta antolakuntzan.	- Malgutasuna taldekatzean jardueren arabera. - Monitorizazio eta lankidetzan lan moduko estrategiak erabili. - Fisioterapeuta eta beste profesional batzuen laguntza.
Egokitzapenak espazioan eta alderdi fisikoetan.	- Ikastetxerako sarbidea eta mugikortasuna bertan: eraikuntza oztopoak kentzea. Irakaskuntza bermatuko duen argiztapena. - Ikastearen kokapena gelan. - Altzarien antolamendua eta erregulartasuna haien kokapenean.
Egokitzapenak hornikuntzan eta baliabideetan.	- Behar den ekipamendua eta baliabide didaktiko zehatzenak. - Merkatuan aurkitzen ez diren materialak sortu.
Denborazko egokitzapena.	- Denbora gehiago eman helburu bat lortzeko. - Denbora egokitzea gelan eta gelatik kanpo. - Irakas orduetatik kanpoko denbora.


- Curriculum Egokitzapen Indibidual ez esanguratsuak. Metodologian, jarduera motetan eta ebaluazio prozeduretan egiten dira aldaketak. Bi urte baino gutxiagoko atzerapenari aurre egiteko egokitzapenak dira.
- Curriculum Egokitzapen Indibidual esanguratsuak. Erreferentziazko curriculumetik dezente urruntzen dira, ondorioz, helburuei, edukiei, ebaluatzeko irizpideei eta oinarritzko kompetentziei eragiten die. Aurretik orientazio departamenduak irakasle-tutorearekin egindako ebaluazio psikopedagogiko bat izanen du eta ikaslearen espediente akademikoak CEIarekin erlazionatutako informazio guztia bilduko duen norbanakoaren dokumentu bat atxikirik izanen du. CEI esanguratsuak bi urte edo gehiagoko atzerapenari aurre egiteko egokitzapenak dira.

7.Taula. Curriculumeko oinarritzko osagaien egokitzapenak, esanguragarritasunaren arabera

Curriculumeko oinarritzko osagaien egokitzapenak, esanguragarritasunaren arabera.	
Egokitzapenak ebaluatzeko prozeduretan.	- Ebaluatzeko prozedurak: ebaluazio tresnak eta teknikak.

Egokitzapen metodologikoak.	- Ikaskuntza batzuk egin baino lehen ikasleari oinarrizko kontzeptuzko edo prozedurazko informazioa eskaintzea. - Estrategia metodologikoak ikasgelan. - Laguntza unitate zehatz batzuetan eta jarduera osagarrietan.
Jarduera moten egokitzapenak.	- Jarduera batzuk aukeratu irizpide hauek kontuan izanik: ikaskuntzen funtzionaltasuna, ikaslearen garapen ebolutiboa edo historial akademikoa, bitartekoen eta baliabideen erabilgarritasuna, eta aldatu diren curriculumeko sarrera elementuak besteak beste.
Edukiak.	- Lehenetsuna eman batzuei, edukiak aldatu.
Helburuak eta ebaluazio irizpideak.	- Denboralizazioa, lehenetsuna eman, berriak sartu, batzuk ordezkatu edo deuseztatu.

Curriculum Egokitzapen Indibidualei buruzko zehaztapen teoriko guztiak eman ondoren, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa aipatzea besterik ez da falta. Marrodán eta Balebonaren esanetan CEI egiten den kasuetan ebaluazioa CEIetan zehaztutako helburu eta ebaluazio irizpideen arabera izan da eta tutoreak egiten du. V.eranskinean 47/2009, 216/2007 eta 93/2008 Foru Dekretuetan Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta Lehen Hezkuntzarako arautzen den ebaluatzea eta zikloz aldatzea bildu ditut.



19.Irudia. Curriculum Egokitzapenak

2.9. Koordinazioaren garrantzia

Koordinazioa antolakuntzaren teorian eta testuinguruaren teorian oinarritzen da. Teoria organizistaren arabera gizartea subjektuen batura baino gehiago da, gizartea antolakuntza biologikorako forma bat izanik. Testuinguruaren teoriak subjektuaren eta testuinguruaren arteko elkarreraginean jartzen du ikuspuntua. Wikiteka erakundetik (<http://www.wikiteka.com>) eta Slideshare erakundeko (<http://www.slideshare.net>) Cornejo eta Sepúlvedaren lanetik)

Beste ezer aipatzen ez den bitartean, jarraian azaltzera noan informazioa Ruiz (2010) erreferentzia bibliografikotik ateratakoa da.

“Familia haurren garapenean eragin handia duen testuingurua denez ikasleen hezkuntza prozesuan parte hartzen duen beste elementuetako bat izatea funtsezkoa da. Horregatik, ikastetxeak familiaren parte hartzea bultzatuko duen baliabide eta estrategiak ipiniko ditu, eta familia, bere aldetik, parte hartze aktiborako irekia egon behar da ikasleen garapen integrala lortu ahal izateko.”
(Ruiz, 2010, 8)

Familia haurren garapenerako lehen testuingurua litzateke eta ikastetxea ikasleek euren garapenerako funtsezkoa izanen den esperientzia berriak bizitzeko testuinguru berria litzateke. Ikastetxea eta familia elkarrekin lan egin behar duten hezkuntzako bi eragile gisa agertzen dira. Familiaren parte hartzea euren seme-alaben autoestima hobetzeko bidea izateaz gain, ikasleen errendimendua hobetzeko aukera ere bada, ikastetxean irakasleek egiten dutena kontuan hartuz familiek etxean hori indartu dezaketelako. Horrez gain, familiek ikasleak hobe ezagutzen dituztenez, irakasleei informazio zehatza eman diezaiokete eta ikasgelan ematen den ikaskuntza testuinguru ezberdinetara hedatzeko aukera sortuko da. Horrez gain, bi testuinguruetan agertzen diren jokabideen berri eman diezaiokete elkarri eta modu honetan testuinguru bakoitzean agertzen diren jokabide egokiak erreforatzeko aukera emanen da, teknika psikologikoen onurak azpimarratzen direlarik modu honetan.

Familiaren parte hartzearen garrantzia kontuan hartuz, ikastetxeak irakasleen eta familien arteko komunikazioa bermatzeko hainbat estrategia burutu ditzake. Ruizen (2010:5) esanetan ondorengo estrategiak eraman daitezke aurrera:

- Ikastetxea eta familia ezagutzea. Familia ikastetxearekin harremanetan sartuko da modu global batean, ez soilik bere seme-alaben berriazko premien inguruko informazioaz mintzatzeko.
- Elkarri errespetua erakutsi behar diote bi testuinguruek.
- Ikasleen premiak onartu behar dira, baina ez soilik haien mugetan zentratzeko. Ikasleek dituzten gaitasunak kontuan hartuko dira eta hezkuntzak gaitasun hauen garapenean duen garrantzia kontuan hartu behar da.
- Bi testuinguruaren artean ikastetxeko lanari buruzko etengabeko komunikazioa eman behar da: agenden bidez, koaderno baten bidez, telefonoz edo zuzeneko elkarrizketen bidez.
- Ikaslearen gizarteratzea bultzatzeko, ikasleak berdinen arteko testuinguru ez formalean parte hartu dezan animatuko zaio familiari. Jarduera ez formal hauetan ikasleak parte hartzeko aukera izan behar du, gainontzeko ikasleekin batera aisialdian disfrutatu dezan eta gizarteratzea bultzatu dadin.
- Tutorea izanen da familiarekin harremanetan jartzeko erreferentzia. Tutorearen eta familiaren artean konfiantza badago edozein arlori buruz hitz egiteko erraztasuna egonen da.
- Guraso eskolak bezala ezagututako hezkuntza bultzatzea ere egokia da.

Horrez gain, Ruizen esanetan (2010:5) ikastetxeak familiekiko erlazioa erraztuko duten mekanismoak eramanen ditu aurrera:

- Elkarrizketak. Elkarrizketak aldezturik aurretik prestatu behar dute, horretarako baliagarria izan daiteke VI. eranskinean ageri da bilera antolatzearen fitxa baten adibidea.
- Agendak. Ikasleak joan-etorriko agenda bat izan dezake. Bertan irakasleek ikasleen lanak, hobekuntzak edota zailtasunak bildu ditzakete.
- Formalak ez diren topaketak. Topaketa hauek ikastetxera sartzean eta ikastetxetik ateratzean eman daitezke. Denbora tarte laburra denez, benetan garrantzitsua den informazio azkar bat trukatu daiteke une honetan.

- Ikastetxean bertan familiarentzako baliabideak eskainiko dituen txoko bat eraikitzea. Txoko honetan baliabideak, artikulak, tailerrak eta gidaliburuak aurki daitezke, gurasoek premia dutenean bertan kontsultak egiteko aukera eskainiz.

Aipatutakoaz gain, Trebolek (2010:53) gurasoei etxean ere eguneroko ekintzetan parte hartzea komeni dela esatea proposatzen du. Ikasleak pixkanaka autonomia lortu behar du, gauza batzuk bakarrik egiten utziko diogularik eta laguntza behar duenean laguntza eskainiko diogularik, modu honetan pixkanaka beharrezko trebetasunak garatzen joanen delarik. Gurasoek haurren autonomia bultzatzeko ondorengo ekintzetan esku hartu dezakete besteak beste:


- Ohera igo eta jaitsi.
- Arropak jantzi eta erantzi: botoiak, belkroak eta kortxeak lotu eta askatu.
- Zapatak jantzi eta erantzi.
- Jostailuak atera eta jaso. Bat erabili eta jaso arte besteak ezin dira atera.
- Garbiketa: eskuak garbitu eta lehortu, hortzak garbitu eta ilea orraztu.
- Arropak garbitzera eraman.

Ikastetxean aurrera eramaten den koordinazioa beraz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko ardatza da. Ikastetxe, familia eta gizarteko beste profesional batzuen koordinazioari esker aurrera eramaten diren hezkuntza erantzunak ezagutuko dira eta partaide guztiek modu berean esku hartuko dute, honek hezkuntza erantzunean ematen diren tekniken eraginkortasuna bermatuko duelarik.

Ikastetxean aurrera eramaten den koordinazioa egokia eta baliagarria izan dadin, ikastetxean Koordinazio Plana egotea eta plan hau praktikan jartzea egokia litzateke.

HAUR HEZKUNTZA		IKASTURTEKO KOORDINAZIO PLANA		
KOORDINAZIO MAILA	HELBURUA	ARDURADUNAK	MAIITASUNA	LÖRPEN ADIERAZLEA
ETAPAKO KLAUSTROAK	<i>Etapan eragina duten gaiak aztertu, koordinatu eta hala beharrez gero erabakiak hartu.</i>			
KOORDINAKETA BILERAK	<i>Etapan eragina duten gaiak dagozkien lanak egin</i>			
MAJLAKO BILERAK	<i>Asteari dagokion programaketa adostu eta prestatu.</i>			
TUMIAK	<i>Tutore eta irakasle bakoitzak bere ikasleen jarraipen egokia ziurtatu dadin orientatzailearekin bilerak.</i>			
HPBko bilerak	<i>HPBko ikasleen jarraipena eta egokitzapenak egin.</i>			

20.Irudia. Praktikak egin ditudan ikastetxe bateko koordinazio plana



21.Irudia. Koordinazioaren garrantzia

2.10. Aipatutako oinarri teoriko hauek hezkuntza praktikarekin duten erlazioa

Ikasleekin esku hartzeko unean kontuan hartu behar ditugun alderdiak dira oinarri teorikoan biltzen direnak. Ikasle guztiekin lan egiteko funtsezkoak diren neurriak dira, baina Gradu Amaierako Lan honetan Curriculum Egokitzapen Indibidualei buruz mintzo garenez, ezin dira ahaztu Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleak. Ezagutza teoriko hauei esker ikasle guztien ikaskuntza eta parte hartzea bermatzea nahi da, ikastetxe koordinetara bultzatuz honela.

Hasteko, normalizazioaren printzipioa ardatz duen araudia kontuan hartuz eta

inklusiara bidean goazela azpimarratuz, ikasgelan gero eta arruntagoa da berariazko premiak dituzten ikasleak edukitzea. Aniztasun honen aurrean ikasle bakoitza bakarra dela ezin da ahaztu eta aniztasun horrek ikasleen ikaskuntzari ekartzen dion aberastasuna azpimarratu behar da, ikasle bakoitzak ikasteko modu bat duelako eta elkarrengandik asko ikasi daitekeelako. Ikasleen ezaugarriak beraz kontuan hartu behar dira eta ondorioz, Howard Gardnerrek proposatzen dituen zortzi inteligentzia anitzak landu behar dira gelan. Inteligentzia guztiak modu orekatu batean lantzeko, Haur Hezkuntzako etapak duen izaera globalaz baliatu daiteke, horrela, inteligentzia kinestesikoa lantzen ari den bitartean inteligentzia musikala landu daitekeelarik adibidez. Horrez gain, ezagutza eraikitzeke garaian funtsezkoa izanen da ikasleek euren interesetatik ezagutza eraikitzea, hori baita ikaskuntza esanguratsua bermatzen duen ikasteko modua, David Ausubelek zioen eran. Ikaskuntza hori esanguratsua izateaz gain, funtzionala, autonomia bermatzen duena eta alderdi akademikoan ez ezik baloreetan hezten duen ikaskuntza izan behar du.

Ikasleen interesak, ikas estiloak, inteligentziak eta motibazioak ezagutzeko ikaslea bera ongi ezagutu behar da eta hortik abiatuko da irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako planteatzen den metodologia. Irakaskuntza indibidualizatu bat eraikitzeke beraz, ikaslea bera ongi ezagutu behar da. Oinarri teorikoan agertzen den moduan, ikasle batzuen ikaskuntzan imitazioak eragin eta ekarpen asko izanen ditu, Bandurak dioen eran; beste ikasle batzuek errefortzuei esker jokabidean aldaketak emanen dituzte, Skinnerrek dioen bezala. Gainera, aipatzekoa da, Skinnerrek dioen bezala jokaera egokiak erreforzatzeak portaera hori errepikatzea ekarriko duela eta horregatik Gradu Amaierako Lan honetan Curriculum Egokitzapen Indibidualetan teknika psikologikoak txertatzearen alde egiten da apustu. Teknika psikologikoei esker ikasleen ikaskuntza prozesua bermatzeaz gain haien motibazio, interesa, inklusioa eta arreta indartuko dira. Aipatzekoa da pertsona bakoitzaren arabera eta aplikatzen den unearan arabera teknika batzuk edo besteak erabiliko direla. Hezkuntzan, ikasleen hezkuntza premiak bi multzotan sailkatzen direla kontuan hartuz, teknika psikologikoak ere bi multzotan sailkatzen dira: batetik irakurketa-idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleentzako teknikak eta bestetik portaera arazoak dituzten ikasleekin erabiltzeko teknikak.

Dena den, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ezin da ulertu ikaslea testuingurutik isolatuz, teoria ekologikoak eta Vigotskiren teoriak zioten eran besteak beste. Testuinguruak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragina duenez, ikastetxeko profesionalen, familiaren eta ikastetxetik kanpoko profesionalen arteko koordinazioa funtsezkoa izanen da ikaslearen ikaskuntza bermatzeko. Horrez gain, inklusioak ikuspegi soziala eta sistemikoa duenez, ikasleek ikasgela barruan jasoko dute laguntza aukera dagoen guztietan, esan bezala inklusioak ikasgela sistema sozial gisa hartzen duelako eta Bandurak eta Vigotskik esaten duten bezala, imitazioak ikaskuntzan paper garrantzitsua jokatzen duelako. Imitazio honen ondorioz, ezin daiteke alde batera utzi irakaslearen jokatze era. Irakaslea ikasleen ereduak izan behar denez, hark dioena eta egiten duena koherenteak izan behar dira eta ahalik eta modu asertiboenean jokatuko du beti.


Ikastetxean hartuko diren aniztasun neurriek ikaslea ez ezik testuingurua ere kontuan hartuko dute eta horregatik, ikaslearen garapen psikologikoa kontuan hartzeaz gain, ikastetxe mailan aniztasunari erantzuteko hartzen diren neurriek garrantzi handia izanen dute. Erantzunak ahalik eta inklusiboenak izan daitezen, ikastetxe mailan hasiko gara neurriak hartzen eta pixkanaka pixkanaka, hala behar izanez gero, ikaslearen curriculumeko arloak egokitzen joanen dira, ikaslearen helburu eta edukiak egokituko diren azken elementuak izanik.

Esandakoaz gain, aipatu behar da ikaslea bera ezaguturik, haiekin lana egiteko garaian ikuskera psikologikoen ere laguntza eskainiko dutela. Ikuskera psikologiko bat ez da bestea baino hobea izanen, ikuskera psikologiko bakoitzetik egokiena eta baliagarriena dena hartuko da kontuan ikasleen ikaskuntza bermatzeko asmoz.

- Psikoanalisari esker ikasleek haien sentimendu, pentsamendu eta nahiei buruz hitz eginen dute eta irakasleak ikasleak gertuagotik ezagutzeko aukera izanen du, irakaskuntza indibidualizatzeko aukera izanen duelarik. Dena den, teoria honetan irakasleak aholkurik ez luke emanen eta ikasleek askotan aholkuak eskatuko dituzte.
- Ikuskera konduktualari esker ikaslearen portaera desegokiak gutxitzeko teknika operanteak erabiliko dira. Horretarako, aurrerago aipatu den bezala, inguruko pertsonak eredugarriak izan behar dute ikasleek imitazioz asko ikasten baitute.

- Ikuskera humanistari esker enpatia landuko dugu eta bakoitzak bere ekintzetan eta jokabideetan berari dagokion ardura hartuko du.
- Ikuskera kognitiboak pentsamenduari esker jokabidea aldatzeko gaitasuna dugula erakutsiko digu. Dena den, kasu honetan irakasleak zuzendari hutsaren papera jokatu luke.
- Ikuskera sistemikoak inguruko partaide guztien inplikazioa ekarriko du eta horri esker ikaskuntza prozesua erraztuko du.

Oinarri teoriko guzti hau kontuan hartuz beraz, ikasleekin esku hartzeko unean nola jokatu argi izanen dugu eta esku hartzeak eraginkortasun handiagoa izanen du, batez ere Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen kasuan, ikasle hauek baztertuak ez direlako sentituko eta haien autoestimua eta motibazioa indartuko direlako irakaskuntza indibidualizatuari, teknika psikologikoei eta profesional nahiz familien arteko koordinazioari esker.



22.Irudia. Ikasleekin nola esku hartu. Oinarri teorikoak hezkuntza praktikaldiarekin duten erlazioa

3. LANAREN GARAPENA: EGILEAREN PROPOSAMENA ETA ARRAZOIZKO PLANTEAMENDUA

Kalitateak esanahi anitz ditu. Hezkuntza sisteman ezin da ebaluatu maila zehatz batzuk lortzen ez dituzten ikasleak ikastetxetik baztertuz. Hezkuntzan lan egiteko sistema errebisatu eta ebaluatuko da, horretarako beharrezkoa izanik formatu argi, zehatz eta komun baten bidez informazioa jasotzea ahalbideratuko duten txantiloiak hezkuntza komunitate osoaren eskura egotea. Dena den, kalitate sistema batez mintzo bagara, horrek esan nahi du modu teorikoan planteatzen diren protokoloak praktikan aurrera eramane behar direla eta etengabeko ebaluazioa egon behar dela, berrikuntzak eta hobekuntzak biltzen joateko.

Ikastetxean aniztasunari erantzuteko protokolo bat egoteak tutoreek ikasleei zerbait deigarria antzematen dietenean zer egin behar duten jakiteko ezagutza emateaz gain, ikastetxe mailan koordinazioa eta koherentzia bultzatzeko bidea bermatzen du. Profesionalen lana ongi ulertzen eta elkartrukatzen bada, ikasleek eta familiek izanen dituzten lorpenak eta aurrerapenak oso garrantzitsuak izanen dira.

Marrodán eta Balebonak (2012) dioten bezala, protokoloek ikastetxeen kalitatearen bermea ekartzen dute, lanak modu objektibo batean biltzeko aukera ematen baitute. Horrez gain, antolakuntzak denbora ekonomizatu eta datuak modu argi eta ebaluagarri batean eskura edukitzeko aukera ematen du. Modu honetan, protokoloen bidez hezkuntza komunitate osoaren aurrean eraginkortasuna, zehaztasuna eta gardentasuna indartzen dira.


Aipatutakoagatik eta jarraian ematen ditudan arrazoiengatik, Gradu Amaierako Lan honetan ikastetxeetan egon behar lukeen aniztasunaren esku hartzeko protokolo bat eta CEI egiteko txantilo bat proposatzen ditut.

- Hezkuntza inklusibo baten bidean¹³ goazenez ikastetxeetan gero eta aniztasun gehiago dagoelako.
- Aniztasun honen ondorioz Curriculum Egokitzapen Indibidualen eskaera ere

¹³ Hezkuntza inklusibo baten bidean goazela ikusi daiteke pixkanaka ematen ari diren aurrerapausoei esker, hala nola, ondorengo dokumentuari esker: *Eskola inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*

handitzen doala antzeman dudalako.

- Praktiketara egon naizen ikastetxeetan CEI egiten zen arren, CEI guztientzat errepikatzen zen dokumentu komun bat ez zegoelako eta CEIak bildu behar zuten guztia dokumentu indibidual pila batean zegoelako.
- CEI aurrera eramaten duen profesionalen batek ikastetxetik alde egiten badu edo baja hartzen badu, haren ordeztuko den profesional berriak ikastetxean zer egin den eta bere lana zein den argi izan dezan.




23. Irudia. Proposamena eta arrazoizko planteamendua

3.1. Aniztasunaren aurrean esku hartzeko protokoloa

Jarraian taulan proposatzen dudana aniztasunari erantzuteko protokoloa Calvo eta Martínez (1999); Darretxe, Gaintza eta Sarasa (2012); Marrodán eta Balebona (2012); Trebol (2011) erreferentzia bibliografikoetan oinarrituz eraiki dut. 24. irudiko fluxu diagrama Marrodán eta Balebonak CEIak egiteko proposatutako prozesua.

8.Taula. Aniztasunari erantzuteko protokoloa

Bilerak	Bilerara bertaraten direnak	Helburua	Zer	Adierazleak
Kurtso hasieran	Orientazio departamentua eta tutorea	Plangintza prestatzea.	Tutore eta Orientazio departamentuak plangintza prestatuko du aurreko ikasturteko informazioa jaso eta aztertuz. Plana prestatzeko EDUCA, ikaslearen txostena, eta baliabideak (CREENA) kontuan hartuko dira.	Departamentuko bileraren aktan erabakiak agertzen dira.
Lehenengoa	Orientatzailea eta tutorea	Tutoreak ikasleari ezaugarri deigarriren bat ikusi dio eta berak gelan bertan ipini dituen neurriak nahikoak ez direnez, orientatzaileari honen berri ematea.	Informazioa elkartrukatzea.	Tutoreak dagoeneko maila curricularra neurturik eraman dezake, baita behaketan jasotako hainbat datu esanguratsu ere.
Bigarrena	Tutorea eta Hezkuntza Laguntzarako Unitatea.	Ikastetxeko Laguntza Zerbitzuak indartze neurri berriak proposatzea.	ILZak indartze neurri berriak proposatzen ditu. Positiboak badira ikaslea gela arruntean geratuko da. Negatiboak badira gurasoei probak egiteko baimena eskatzera pasako gara.	Tutoreak dagoeneko maila curricularra neurturik eraman dezake, baita behaketan jasotako hainbat datu esanguratsu ere.
Hirugarrena	Ikaslearen gurasoak, tutorea eta orientatzailea.	Gurasoei egoeraren berri emanen zaie. Adostasuna eta probak egiteko baimena eskatuko dira.	Informazioa elkartrukatzea. Koordinazioaren garrantzia azpimarratzea.	Guraso bilerarako fitxa. (Ikus VI.eranskina)
Laugarrena	Hezkuntza Laguntzarako Unitatea eta tutorea	Egokitzapena hastea.	Egin behar den egokitzapen motan eta egokitu behar diren alderdietan pentsatzea.	Ikastetxeko Aniztasunari Erantzuteko Plana, Gelako programazioa, informe psikopedagogikoa, maila curricularra (ikus VII.eranskina), ikaslearen lan ezberdinak, behaketa fitxa, e.a. kontuan hartuko dira.
Bosgarrena		Egokitzapena egitea.	Hezkuntza erantzuna zehaztea.	Curriculum Egokitzapen Indibiduala
Jarraipena eta ebaluaketa	Hezkuntza Laguntzarako Unitatea eta tutorea.	Eginiko lanaren balorazio txostena.	Orientazio Departamentuko artxibategian gordetzeko egiten den bilakatze txostena. Datuak isilpekoak dira. Hasieran proposatutako neurriak etxean eta ikastetxean aurrera nola eraman diren ikusiko da. Prozesuaren ebaluazioa, aldaketa posibleak, proposamenak, e.a.	CEI, bertan aldaketak sartzeko, eta ebaluazioen amaieran eginen den balantze-txostena.
Kurtso amaieran	Orientazio departamentua	Ikasturtean eginikoaren balantze-txosten orokorra idaztea.	Zer egin den eta datorren ikasturteari begira zer espero den.	Kurtso amaierako balantze-txosten orokorra.



24.Irudia. Curriculum egokitzapenak egiteko fluxu-diagrama (Marrodán eta Balebona, 2012, 97)

3.2. Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI) egiteko proposamena

Ikaslea curriculum arruntetik eta testuinguru arruntetik urruntzea saihestuko duten neurri guztiak aurrera eraman ondoren (normalizazio printzipioa) ikaslearen parte hartzea eta ikaskuntza bermatzeko Curriculum Egokitzapen Indibiduala egitea erabakitzen bada, Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen ezaugarrietara moldatuz eginen da egokitzapena.

CEI egitean beti curriculum arruntetik abiatuko da eta banakako egokitzapenen aurretik egokitzapen orokorrei emanen zaie lehentasuna, Vigotskik eta teoria ekologikoak azpimarratzen duten testuinguruaren eraginagatik eta hezkuntza inklusibo batera goazelako. Hau horrela, curriculumeko sarrera elementuak aldatzen hasiko gara eta gero, beharrezkoa bada, curriculumeko oinarriko elementuak aldatuko dira, beti ere edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak aldatuko diren azken elementuak izanik. Guzti honengatik, nik proposatutako CEI-an aldatu beharreko elementuak orden honetan agertzen dira, CEI-an bertan ingurunearen eragina kontuan hartzen delarik eta oinarri teorikoan aipatutako aniztasuna erantzuteko neurriak aintzat hartzen direlarik.

Egokitzapenak egiteko garaian, ikaslea planteamendu komunitate ahalk eta gutxien urruntzeko, aipatutakoaz gain, ezin dira ahaztu ondorengo alderdiak:

- Egokitzapenak egiteko pausuen hurrenkera. Hasteko, curriculumeko sarrera elementuak egokitzea eta ondoren curriculumeko oinarriko osagaiak, beti ere hurrenkera hau jarraituz: ebaluatzeko prozedurak, metodologia, jarduerak, edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak.
- Ikastetxea. Eraikuntza aldetik ikasleari traba egin diezaioketen oztopoak kendu behar dira, beharrezkoa bada maldak ipini, igogailurik ez badago ataririk gertuen dagoen gelan behar diren ikastaldea kokatu, komun egokituak eduki, ate zabalak jarri eta argiztapena zaindu. Horrez gain, gabeziei aurre egiteko, hobekuntza plan erreala planteatu eta praktikan ipiniko dira, gero ebaluatuak izan eta plan hauei etekinak ateratzeko.
- Baliabideak. Ikastetxe mailan hezkuntza errazteko helburuarekin zenbait material berezi egonen da. Ordenagailuetako programei esker adibidez letra tamaina eta irudiak handitzeko aukera dago. IKTei esker beraz ikasleen ikaskuntza bermatu daiteke. Dena den, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuz, gerta daiteke hainbat ikastetxek baliabide hauek lortzeko horrenbeste aukera ez izatea, horretarako irakasleak software libreko programak bilatu ditzake edo bere sormena erabiliz ikasleari egokitutako materiala eraiki dezake. Materialak egokitzeko ideiak Alanda erakundeko <http://www.asociacionalanda.org> web orrian aurki daitezke. Horrez gain, CREENako web orrian irakasle, guraso eta ikasleen eskura dagoen informazio gehiago dago. Ikastetxeak eskaintzen dituen giza baliabideak eta CREENA bezalako baliabide zentroek eskaini ditzaketen giza baliabideak kontuan hartu behar dira. CREENA Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa da, gure foru-komunitatean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntza eskaintzeko zerbitzua hain zuzen ere.
- Metodologia. Ikasle guztien parte hartzea bermatzeko ikasgelan metodologia anitzak erabili behar dira. Gardnerrek dioen eran inteligentzia anitzak ditugu eta inteligentzia guztiak landu behar dira ikasle guztiei erantzun egokia eman

ahal izateko. Horrez gain, Ausubelek dioen bezala, ikasgelen ikaskuntza esanguratsua eman behar da modu honetan ikasleak ezagutza eraikiz, horrela benetako ikaskuntza bermatzen baita. Guzti hau uztartzeko, ikasleak motibatuko dituzten haien interesetako gaiak kontuan hartzeaz gainera, taldekatze ezberdinak egin daitezke. Haur Hezkuntzan adibidez txokoka lan egiten da eta txoko bakoitzean ezagutza ezberdinak lantzeko aukera dago. IKTek ere indarra hartu dute eta hainbat ikastetxetan ere proiektuak lan egiten hasiak dira. Baina horrez gain badira beste taldekatze mota batzuk: taldean ezagutzak elkartrukatzuz lan egiteko estrategia ezberdinak (berdinen arteko tutoretza, buruhaustea, kooperazio egituratua eta elkarri erakustea), arazoetan oinarritutako ikaskuntza, kasuetan oinarritutako ikaskuntza, elkarrekiko ikaskuntza, jolas kooperatiboak, proiektuen bidezko ikaskuntza eta talde elkarreragileak. Taldekatze hauekin jokatzuz ikasle guztien ikaskuntza bermatuko da. Horrez gain, ikasle guztientzat onuragarriak diren erlaxazio teknikak eta emozioen lanketa bultzatu daitezke, harreman sozialetan eta komunikazioan indarra jartzeaz gainera.

- Egokitzapena egitean helburuak edo edukiak aldatzera iritsiko bagina, lehenik eta behin etapako helburu orokorrak kendu gabe egokitzapena egiten saiatuko ginateke, hurrengo pausua etapako helburu orokorrak kentzea litzateke eta azkenik helburuak guztiz kentzea.
- Ikaskuntza indibidualizatua. Ikasle bakoitzak bere izaera eta ikasteko era duenez, irakaslearen eta ikaslearen artean harreman estua egoteak elkar oso ongi ezagutzea eta behar diren neurriak hartzea ekarriko du. Oinarri teorikoan aipatutakoa aintzat hartuko dute profesionalek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikasle bakoitzera moldatzeko.
- CEI errealista izan behar da eta bertan ipintzen dena praktikara eramanen da, ondoren ebaluatua izateko. CEI hezkuntza komunitate osoarekin partekatu daitekeen dokumentu informatizatu bakar batean eginen da, sarean zintzilik dagoen googledrive gisako dokumentu batean, beti ere isilpeko datuen

konfidentziasuna¹⁴ kontuan hartuz. Modu honetan profesional bakoitzak guztia idatziz utziko du bertan eta gainontzeko profesionalek aldaketen berri izanen dute. Horrez gain, dokumentu informatizatua izatean, beharrezkoak diren esteka guztiak egin daitezke CEIko leku batetik bestera edo CEItik bertatik beste leku batzuetara.

Profesionalek formakuntza jarraia jasotzeaz gainera guzti hau kontuan hartu beharko dute, ikasle guztien mesederako baita eta honi esker ikasle guztien parte hartzea eta ikaskuntza bermatzen baitira.

Jarraian nik proposatutako Curriculum Egokitzapen Indibidualaren dokumentua ageri da. Dokumentu hau osatzeko informazioa Calvo eta Martínez (1999); Esarte (2013); Iza (2012), Marrodán eta Balebona (2012); Trebol (2011, 2013) erreferentzia bibliografikoetatik lortu dut.

Eskola garaian agertzen diren nahaste psikoebolutiboen eta berauen esku hartzeari buruzko tekniken informazio gehigarria Gradu Amaierko Lanaren IX. eranskinean ageri da.

¹⁴ Datuak babesteko legea: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa.

CURRICULUM EGOKITZAPEN INDIBIDUALA**1. IKASLEAREN DATU PERTSONALAK.**

IZEN ABIZENAK:

Jaiotze data:

Helbidea:

Herria:

Telefonoak:

Gurasoen helbide elektronikoa:

Zikloa: Maila: Taldea: Ikastetxea:

Ikastetxeko helbidea:

Ikastetxeko telefonoa:

CEI eginiko data:

Parte hartu duten profesionalak:

- Tutorea:
- Laguntza irakaslea:
- Pedagogia Terapeutikoko irakaslea:
- Entzumen eta Lengoiako irakaslea:
- Hizkuntza irakaslea:
- Orientatzailea:

Ikastetxearen izena/orrialdea

2. TESTUINGURUKO EZAUGARRIAK.

2.1. Ikaslea. Ikaslearen aurretiko eskolatzeari, ikastetxean eta ikastetxetik kanpo jasotzen diren laguntza eta ikaslearen ikastetxeko historiari buruzko beste hainbat ohar.

Matrikulatuta egon den zentroak:

Txostenak ditu: Bai () Ez ()

Ikasketekiko motibazioa orokorrean da: altua; normala; baxua; oso baxua.

Interesak:

Ikas estiloa.

Taldeko lanetan segurtasun-gabezia agertzen du bere mugak agerian geratzen direlako. Banakako atentzioa eskaintzen zaizkion ariketak nahiago ditu.	
Jarduerak ondo egitean errefortzu positiboa lortzen du, aurrera egiteko indarrak eta motibazioa lortzen dituelarik.	
Ondo egin ahal dituen ariketetan motibatua agertzen da.	
Lanean inpulsiboa eta konstantzia gutxikoa da, horregatik jarduera motzak hobeto burutzen ditu.	
Zailtasunak ditu lana antolatzerakoan eta horregatik nahiago ditu irakasleak zuzendutako ariketak.	
Ezagutzen dituen gauzetatik abiatzen denean hobeto egiten du lan.	
Gauzak partekatzeko eta besteekin lan egiteko arazoak ditu.	
Segurtasun falta dauka bere buruarekiko eta autoestimua baxua.	
Etengabe afektibitatea eta laguntza eskatzen du.	
Etengabe hizketan eta mugitzen dago. Oso mugitua da.	
Jarrera desantolatu eta anarkikoak agertzen ditu.	
Bete ekoizpenak baloratzen ditu.	
Ez ditu gehiegi baloratzen bere ekoizpenak	
Nahiago du banaka lan egin.	
Nahiago du talde txikian lan egin.	
Zailtasunen aurrean lana usteko joera du.	
Nahiz eta zailtasunak topatu lanean dihardu.	
Abesti eta jokoen bitartez oso ongi ikasten du.	
Adierazpen artistikoa indargarriak dira.	
Zailtasunei pausoz pausoz ekiten die.	
Lan egiteko era batean dihardu nahiz eta ez funtzionatu.	
Lan teknikak aldatzen ditu erabilgarriak ez direla ikusten duenean.	
Lanean hasi baino lehen zer egin behar duen pentsatzen du.	
Lanean hasi behar duenean pentsatu gabe hasten da.	

Ezagutza gehienetan ikus-elementuetan oinarritzen du : irakurketa, behaketa...	
Ezagutza gehienetan entzun-elementuetan oinarritzen du : hitz egin, irakaslearen azalpena entzun...	
Ezagutza gehienetan manipulazioan, esperimentazioan... oinarritzen du	
Ebaluazioan blokeatzen da edo galdetzen zaionean.	
Lanen aurrean antsietatea agertzen du.	
Jakin-nahia agertzen du fenomeno berrien aurrean.	
Bere akatsak ez ditu onartzen.	
Bere eta besteen eskolako materialarekin arduratsua da.	
Ekintza batzuetan bere lan erritmoa besteen mailakoa da.	

Oharrak:

2.2. Familia. Maila ekonomiko eta kulturala, antolaketa, elkarrekintzak, itxaropenak eta garrantzitsua iruditzen diren oharrak bilduko dira.

Aita:

Jaiotze data:

Lanbidea:

Ama:

Jaiotze data:

Lanbidea:

Anai-arrebak eta haien jaiotze data:

Maila ekonomikoa: altua; normala; baxua; oso baxua.

Maila sozio-ekonomikoa: altua; normala; baxua; oso baxua.

Bizitokiaren datuak: etxebizitza eta auzoa.

Ikastetxearen izena/orrialdea

Familiako dinamika.

Guraso eta seme-alabaren arteko erlazioa:

Anai-arrebekin duen erlazioa:

Familiako beste kide batzuekin duen erlazioa:

Ikaslearen premien aurrean familiak duen erreakzioa:

Ikaslearen hezkuntza prozesua errazten duten familiaren beste jarrera batzuk:

Ikaslearen hezkuntza aukeretakako itxaropenak:

2.3. Ikastetxea. Ikastetxe mailan egiten den ingurunerako egokitzapena, gelako egoera eta garrantzitsuak diren beste hainbat alderdi biltzen dira hemen.

2.4. Ikasgela. Espazio eta materialari dagozkion aldagaiak: interakzioa bultzatzen den, gelaren antolaketa nolakoa den, zein irakaskuntza-ikaskuntza prozesu errazten duen, eta ikusmen eta entzumen egokia bermatzen den. Irakasleak orain arte ikasleen hezkuntza bermatzeko ikasgelan hartu dituen neurrien laburpena egin:

Ondorengo taulako alderdiren bat kontuan hartzen bada X markatu.

	Komunikazio arazoak baldin badaude	Komunikazio sistema gehigarriak	Ikasleek diotena ulergaitza bada, komunikazioa osatu eta areagotzen duten sistemak dira. Helburua aho hizkuntzan suerta daitezkeen zailtasunetan laguntzea da (ahoz hizkuntza badu beraz), eta aipatzekoa da gaitasunak hobetzen joaten diren heinean laguntza desagertzen joango dela.
		Komunikazio sistema alternatiboak	Hitzeko mintzairarik eskuratu ez duten haurren kasuan, aho hizkuntza ordezkatzeko duten sistemak dira (ikasleek aho hizkuntza ez dute beraz). Helburua komunikazio bide berriak irekitzea eta autonomia bultzatzea dira, eta aipatzekoa da, ikasleek ingurunearekin komunikatzeko bidea izan dezaten, komunikazio sistema alternatiboak erabiltzea beharrezkoa dela.
	Zentzumen anitzeko irakaskuntza		Zentzumen batean baina gehiagotan oinarritutako materiala eskaintzean oinarritzen den irakaskuntza da, materialak haurren ikasteko estrategia ezberdinei egokitzen direlarik horrela. Horretarako, IKTetaz baliatu daiteke, ikusizko plangintzak erabili daitezke (ordutegiak, egutegiak, agendak, e.a.), eta entzumen nahiz ikusizko albumak eraiki daitezke.

Ikastetxearen izena/orrialdea

3. IKASLEAREN EZAUGARRIAK. IKASLEAREN GARAPENA EREMU DESBERDINETAN ETA CURRICULUM-GAITASUN MAILA.

Orientatzaileak pasatako **frogak eta emaitzak**.

Curriculum mailaren zehaztapena. Beharrezkoa ikusten bada, ikaslearen garapenaren beste arlo batzuetako datu aipagarriak edo oharrak bildu daitezke: arlo biologikokoak, intelektualekoak, motorekoak, hizkuntzakoak, emozionalekoak eta gizarteratzekoak.

IKASTETXEA:		HERRIA:		EBALUAZIO DATA:	
IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK:			JAOTZE DATA:		MAILA:
Hezkuntzako etapa:			Neurtzen ari den arloa:		
Ebaluatzeko irizpideak	B (Bakarrik lortua)	E (Ez da hasi)	L (Laguntzarekin). Irizpidea lortzen ari da. Adierazi noraino egiten duen.	Jasotzen duen laguntza. Oharrak.	

4. IKASLEAREN HEZKUNTZA-PREMIAK.

Ingurunearekin lotutako beharrak. Ikasle bakoitzaren beharrak hautatu eta gehiago baditu erantsi:

	Azalpen argiak eta zehatzak behar ditu.
	Talde heterogeneoetan lan egitea behar du.
	Gainontzeko ikasleen laguntza jaso dezakeen taldeetan kokatu behar da ikaslea, beste gauza batzuetan bera izango da erakutsiko duena.
	Lan motzak, zehatzak eta motibatzaileak behar ditu, elementu manipulatioekin.
	Bere lorpenen errefortzuak behar ditu.

Oinarrizko gaitasunekin lotutako beharrak. Ikasle bakoitzak dituen beharrak hautatu eta gehiago baditu erantsi:

	Emozioak lantzea behar du.
	Autokontzeptua eta autoestima hobetzen lagunduko dioten estrategiak garatu behar ditu.
	Harreman sozialetan indartzea behar du.
	Autonomiaz mugitzeko askatasuna behar du.
	Talde lanean lan egiten ikasi behar du.
	Arreta fokalizatzen eta mantentzen lagunduko dioten jarduerak behar ditu.
	Ikaskuntza estrategiak maneiatzea behar du.
	Arrazoitzen ikasten lagundu behar diogu.

Ikastetxearen izena/orrialdea

Curriculumeko alderdiekin erlazionatutako beharrak modu labur batean adierazirik:

5. HEZKUNTZA-ERANTZUNA. ERABAKIAK HARTZEA.

5.1. Erabakiak ikastetxe mailan. Aniztasunari erantzuteko planean.

5.2. Erabakiak ziklo edota ikasgela mailan. Gelako programazioan.

5.3. Jarraituko den curriculum egokitua. Curriculumaren plangintza orokortua.**Curriculumeko sarrera elementuak**

- Egokitzapenak giza baliabide eta antolakuntzan.
- Egokitzapenak espazio eta alderdi fisikoan.
- Egokitzapenak hornikuntza eta baliabideetan.
- Denboraren egokitzapena.

Curriculumeko oinarrizko osagaiak

- Ebaluatzeko prozedurak: ebaluazio tresnak eta teknikak.
- Egokitzapen metodologikoak.
- Jarduera motak eta jardueren sekuentzia.
- Edukiak.

Ikastetxearen izena/orrialdea

- Helburuak eta ebaluazio irizpideak.

Arloa:		
Helburua	Edukia	Ebaluatzeko irizpidea

6. CURRICULUM EGOKITZAPENAREN JARRAIPENA ETA EBALUAKETA.**Koordinazioa eta familien parte hartzea:**

Bilera data	Bilerako partaideak	Zer hitz egin den	Pertsona (familiako kide bat adibidez) eta hartuko duen konpromisoa	

Curriculumaren proposamenaren jarraipena eta ebaluaketak egiteko maiztasuna:

Bilera data	Bilerako partaideak	Proposamen curricularraren balorazioa	Proposamen berriak

7. BEHAR DIREN GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.

- **Giza baliabideak.**

Ikasleak jasoko duen laguntza zein espaziotan eman behar den zehazteaz gain, ikasgelatik kanpo eta ikasgela arruntean zenbat ordu pasatzen dituen aipatu behar dira. Ikuspegi inklusibo batetik lan egitea proposatzen denez, ikaslea gela arruntean ahalik eta denbora gehien egotea aholkatzen da, gizarteratzea bultzatu dadin.

Ordua	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:
	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:
	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:
	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:	Irakaslea: Lekua: Taldea: Landuko den arloa:

Aste batean profesional bakoitzarekin zenbat ordu emango dituen ere bilduko da:

Profesionala	Ordu kopurua

- **Baliabide materialak.**

8. BALIABIDE PSIKOLOGIKOAK.

Jokabidea garatzeko, mantentzeko edo gutxitzeko teknika psikologikoak eta irakurketa-idazketa prozesurako erabilgarriak diren teknika psikologikoak kontuan hartuz profesional bakoitzak jarduera bakoitzean zein teknika psikologiko erabiltzen duen zehaztuko du jarraian, ikaslearen ikaskuntza bermatuko duen talde profesionalaren arteko koordinazio sendo bat osatzeko.

Profesionala	Erabiltzen duen teknika psikologikoa	Zein helbururekin erabiltzen den teknika psikologikoa	Bere planteamenduen azalpen laburra	Noiz erabiltzen duen. Jarduera. (Helburu didaktikoetan oinarritua egon behar du).	Behar diren baliabideak

Ikastetxearen izena/orrialdea

9. IKASTURTEZ PASATZEKO IRIZPIDEAK.

Ikasle hauek batez ere ondorengo arrazoiengatik pasako dira ikasturte batetik bestera:

Ikasturte bat errepikatu izana.	
Bere taldean gizarteraturik jarraitzea.	
Proposatutako ebaluazio irizpideak gainditzea.	

Curriculum Egokitzen Indibidual hau osatzen lagundu duten pertsonak eta gurasoak:

Tutorea

Orientatzailea

PT

Logopeda

Gurasoak

CEI ERANSKINAK.

(Curriculum Egokitzapen Indibiduala egitean adituek erabiliko dutena, aukeraketa egiteko, kontsultarako eta abar)

I. CEI ERANSKINA. Eskola garaian agertzen diren nahaste psikoebolutiboen zerrenda eta gehien erabiltzen diren teknika psikologikoak.

Eskola-garaian agertzen diren nahaste psikoebolutiboen taldekatzea.	Nahaste talde bakoitzarekin gehien erabiltzen diren teknika psikologikoak.
Irakurketa- eta idazketa-prozesuari loturiko nahaste nagusiak.	Irakurketa-idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleentzako teknikak.
<ul style="list-style-type: none"> • Arreta-gabezia (hiperaktibitatearekin) • Dislexia • Lengoiaia, mintzaira eta hizkuntzaren nahastea • Lengoaiaren mugaketa esanguratsua edo lengoaiaren nahaste zehatza 	<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia: ikaslea irakaslearengandik hurbil. • Metodo inklusiboak: talde elkarreragileak, taldekatze malguak eta heterogeneoak, elkarlanean ikasteko teknikak. • Azalpenak sekuentzietan eman ikasleei. • Irakasleak atazak irakurtzea. • Zentzumen anitzeko irakaskuntza. Ahozko eta ikusizko informazioa eman aldi berean. • Komunikatzeko ohitura egokia irakasleek: begitara begiratu, lasaitasunez entzun, txandak errespetatu, ikasleari denbora eman. • Ikasleari eredu egokia eman, hari gehiegi zuzendu gabe. Autoestima zaindu behar da. Haurren akatsak ez imitatu. Irakaslea bera edo beste ikasleak izanen dira haien eredu, modelamendua. • Ikaslearen motibazioa: irakurri edo idatziko dituzten testuen gaia gustatu behar zaie. • Ikasleari denboraz abisatu berak ozenki noiz irakurriko duen, testua prestatzeko. Testu hauek ez dira luzeak izanen. • Lanak zuzentzean: lanak ikaslearekin zuzentzea komeni da haiek ikus dezaten ongi egin dutena eta gaizki egin dutena zer den, beti ere lantzen ari diren eduki zehatz hori zuzenduko delarik. Horrez gain, ikaslearen esfortzuari azken emaitzari baino garrantzi gehiago emanen zaio. • Ikaslearen jarduera ez da mugatu behar ariketa sinpleetara. Lana egin dezakete, baina zama neurtuko da. • Irakasleak ikasleari bere arazoa ezagutzen duela erakutsi behar dio, behar duenean laguntzeko prest dardela adieraziz. • Ebaluazioa ikasleen ezaugarrietara egokituko da: ahozko azterketak, test motakoak, galderak zailtasunen arabera ordenatu, galdetegiaren formatua zaindu eta frogak egiteko denbora malgua eskaini. • Irakasleak kontzeptuak argi eduki behar ditu, nahasteak saihestuz. Inpulsibitatea atentzioa deitzeko nahiarekin nahastu ohi da, arreta falta motibazio baxuarekin eta hiperaktibitatea urduritasunarekin. • Kasuaren arabera, batzuetan komeni da ariketa fisikoa eskatzen duten jarduerak egitea energia kanporatzeko.

Harreman edo portaerari loturiko nahaste nagusiak.	Portaera arazoak dituzten ikasleekin erabiltzeko teknikak.	
<ul style="list-style-type: none"> • Nahaste psikosomatikoak • Garapenaren nahaste orokorrak • Atzerapen mentala • Down-en sindromea • Mugimen-arazoak eta garun-paralisia • Supergaitasuna • AFN-H 	<ul style="list-style-type: none"> • Arauak eta mugak ezarri. Ikasleei segurtasuna emateaz gain haiengandik zer espero den badakite. Tolerantzia maila kontuan hartu behar da. • Arauak: argiak, zehatzak eta adinari egokituak. Haiekin sortu ezker eraginkorrakoak izanen dira. Erraz ikusteko lekuetan ipiniko dira. • Irakasle-ikasle harreman estua izan behar da, ikaslearen erosotasunerako garrantzitsua da hau. • Begi kontaktua mantendu behar da irakasle eta ikasleen artean. Gainera, irakasleak poliki, garbi eta lasai hitz egingen du. • Ardua batzuk ikaslearen esku utziko dira, lehenagotik irakasleak eta ikasleak adostutako ardurak. Paperak banatzea, idazkaritzara gutunak eramatea, e.a. • Berarekin bakarka egiten denean irakaslea ikaslearen eskuineko aldean edo aurrez-aurre jarriko da. Gelan dagoenean, haurra irakaslearen ondoan jartzea komenigarria da baita langileak diren ikaskideez inguratua. • Irakasleak batzuetan ezikusiarrena egitea gomendagarria da. • Ariketa fisikoa eskatzen duten jarduerak egitea gomendagarria da, energia kanporatzeko. • Ariketa funtzionalak, laburrak, egituratuak eta motibagarriak. Jarduerak egiteko denbora malgua, baina mugatua. • Gaitasun bisuala entzumenezkoa baino garatuagoa dute, idatzizko materiala ematea komeni da. • Arbelean idatzitakoa ezabatzen joanen gara, ikasleak arreta galtzen badu arbelera begiratu eta non goazen jakin dezan. • Ikasleak ongi egindako gauzak asko goraiatu behar dira eta gaizki egindakoak modu asertiboan seinlatu. • Autoestimua hobetzeko helburua izan behar dugu, ikasleak bere errendimendu maila eta autokontzeptuari dagokionez esperientzia negatiboak izanen baititu. 	
	Jokabidea mantendu edo garatzeko teknika operanteak.	Jokabidea desagertzeko teknika operanteak.
	<ul style="list-style-type: none"> • Moldeamendua. • Kitzikatzaile edo zirikatzaileak. • Desegitea. • Kateatzea. • Orokortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Desagertzea. • Errefortzu diferentziala. • Zigorra: erantzunaren balioa eta denbora kanpoan. • Gainzuzenketa. • Fitxen ekonomia. • Kontigentiaren kontratua. • Dordokaren teknika.

Ikastetxearen izena/orrialdea

II. CEI ERANSKINA. CEIan erabiliko den egokitutako materiala.

3.3. Profesionalek esku hartzeko unean argi eduki beharreko alderdiak

Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleekin esku hartzeko irizpideek Trebolan (2012) esanetan, eragin zuzena dute irakasleen lanean, besteengatik erantzun jakin bat lortu nahi bada eraginkorrena geure jarrera eta egiteko era moldatzea baita. Esku hartzeko irizpide horiek ondorengoak dira:

- Aniztasunari erantzutea. Aniztasuna aberastasun gisa ikusiz ikasleen talde lana bultzatuko du. Ikasleak ezberdinak direnez eta bakoitzak bere motibazio, interes, ikasteko estilo eta ezaugarri propioak dituen hori kontuan hartu beharko du.
- Behaketa. Taldea ezagutzeko eta identifikatzeko.
- Datuen erregistroa. Erregistro honek eragin psikologiko bikoitza du, ikaslea eta irakaslearengan eragina duelako. Eguneroko batean bilduko du irakasleak egunean zehar egindakoa.
- Jokabide asertiboa sustatzea. Beharrezkoa da irakaslearen jokaera eredugarria izatea eta aurrerago aipatu bezala, modu koherentean jokatzeko.
- Harreman sozialak zaindu behar dira. Modu honetan Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleekin autoestimua sendotuko da.
- Afektibotasuna. Ezinbestekoa izanen da ikasleen gaitasunetan sinestea, beraiek ere horietan sinesteko.
- Mugak ezartzea. Pertsonen garapen integrala sustatzeko eta beharrei kasu egiteko.
- Baliabideak. Irakasleak baliabideak ezagutu behar ditu, hala nola, materialak, laguntza zentroak eta estrategia psikologikoak.
- Ikasgela prest edukitzea. Irakasleak alde aurretik egunean zer landu behar den prest edukiko du eta ikasgelara ikasleak iritsi aurretik sartuko da, ikasgela prest egoteko.
- Ikaste prozesua gertutik jarraitzea.
- Haurren garapen aldiak ezagutzea.

- Irakasleen elkarlana.
- Familiekin elkarlana. Informazioa elkartrukatzeko funtsezkoa izanen da.
- Informazioaren trataera. Informazioa biltzeko irakasleen koordinazio bilerak egingo dira eta bileren erregistroek, informeek eta txostenek bertan hitz egindako guztia jasoko dute.
- Formakuntza eguneratzea. Etengabeko formakuntza funtsezkoa izanen da irakasleentzat.
- Maila curricularraren egokitzapena. Ikaslea curriculum arruntetik eta testuinguru arruntetik urruntzea saihestuko duten neurri guztiak hartu ondoren (normalizazio printzipioa) ikaslearen parte hartzea eta ikaskuntza bermatzeko Curriculum Egokitzapen Indibiduala egitea erabakitzen bada, Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen ezaugarrietara moldatuz egingen da egokitzapena. Arazoa ez da pasatzen utzi behar, ahalik eta azkarren esku hartu behar da.

4. IKASTETXEAN DUEN ERAGIN SOZIALA, PSIKOLOGIKOA ETA PEDAGOGIKOA

4.1. Alderdi teorikoa

Teknika psikologikoak Curriculum Egokitzapen Indibidualetan duen eragin soziala, psikologikoa eta pedagogikoa zein den azaltzera noa jarraian.

Eragin sozialari dagokionez, batetik, aipatu behar da Berriazko Hezkuntza Premiei buruz ikasmaila guztietan hitz egin behar dela, premia horiek dituen ikasleren bat gelan egonda edo egon gabe. Gai hauek lantzean ematen den komunikazioari esker "tabu" izatera iritsi daitekeen gai bat sozializatu egiten da, horrek eragina izanen duelarik bai ikastetxe mailan baita gizarte mailan ere. Aniztasuna, elkarrekiko errespetua eta elkarlana bezalako gaiak ikasgelan lantzeak desberdintasunak onartzea dakar.

Bestetik, ikastetxean ikasleekin esku hartzeko momentuan teknikak erabiltzearen ondorioz eta esku hartze egoki bati esker, Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen autoestimua eta motibazioa indartzen dira, gainontzeko gelakideekin izan ditzaketen arazoak gutxituz eta ikaslearen barneratzea bultzatuz. Tekniken bidez harreman sozialak eta komunikazioa lantzen dira gehienetan, honi esker ikasle guztien beharrei erantzuna ematen zaizalarik eta ikaslearen gizarteratzea bermatzen delarik, bai ikastetxean bertan baita ikastetxetik kanpo ere.

Horrez gain, nik planteatutako proposamenari esker CEIak egitean talde profesionalaren arteko eta familiaren arteko koordinazioa ere funtsezkoa izanen denez, gurasoekiko harremana sustatuz, ikastetxearen eta familiaren inplikazioa sendotzen dira. Modu honetan ikastetxea familiara irekitzen delarik eta familia ikastetxera.

Eragin psikologikoari dagokionez, hasteko, esan behar da nik planteatutako proposamenean agertzen den bezala, ikastetxean esku hartzeko protokolo bat egoteak eta CEI egiteko antolatutako dokumentu bakarra edukitzeak profesionali haiek egiten ari diren lanarekiko ziurtasuna transmitituko diela, profesionalen lana txukuna eta giro lasai batean aurrera eramaten delarik, haien arteko iskanbilarik sortu gabe. Giro lasai


eta eroso hau konturatu gabe bada ere ikasleei transmitituko zaie eta ikasleek lasaitasunez eta ziurtasunez egingen dute lana.

Esandakoaz gain, teknika psikologikoei ikasleen zailtasunei aurre egiten dietenez eta haien gaitasunetan indarra jartzen dutenez, hau da, teknikak ikasleen premietara egokitzen direnez, ikasleen ikaskuntza eta parte hartzea bermatuko da haien motibazioari esker.

Aipatu behar da gaia ikasgelan normaltasunez lantzeak ikasleek ezberdintasunari buruzko ikuspegi berri bat edukitzea ekarriko duela. Guztiok ezberdinak garela jabetzeak eta noizbait premiak izanen ditugula ikusteak ezberdintasuna aberastasun gisa hautematea ekarriko du, ikasle bakoitzak gaitasun batean bestean baino erraztasun gehiago edukitzeak arlo ezberdinetan elkarri laguntzeko gai izanen garela erakutsiko digu. Psikologikoki beraz, eragin positiboa izanen du guztion ezberdintasunak aberastasunaren iturri direla kontuan hartzeak eta guk zerbaitetan lagundu dezakegula ikusteak.

Azkenik, *eragin pedagogikoari* dagokionez esan behar da, teknikak ikasleen ikasteko metodologian eragina dutenez esku hartzeko momentuan irakasleak irakatsi beharrekoa nola transmititu behar duen kontuan hartuko duela. Transmititu beharreko mezu hori ikasleak uler dezan irakasleak bere jarrera zainduko du, materiala moldatuko du eta ikaskuntza ikaslearen ezagutzetatik eraiki dadin bermatuko du, modu honetan ikasleen ikaskuntza sustatuz eta porrota saihestuz. Ikasleek daukaten lan egiteko eta ikasteko aniztasun horri material ezberdinen bidez, IKT tresnen bidez eta lan talde heterogeneoen bidez egin diezaioke aurre irakasleak, baliabide hauek ikaslearen garapenean eragina izanen dutelarik. Esandakoaz gain, aipatzekoa da, Gradu Amaierako Lan honetan egindako proposamenak inklusioa ardatz duela eta hori funtsezkoa dela ikasleriaren barneratzea bultzatu nahi duen gaur egun pedagogian.

Ikastetxean esku hartzeko protokoloari, Curriculum Egokitzapen Indibidualerako dokumentu komun eta bateratuari, eta tekniken erabilerari esker proposamen honek sozialki, psikologikoki eta pedagogikoki hezkuntza arloan eragin zuzena duela ikus daiteke. Edukien ikaskuntza bermatuko da, motibazioa eta autoestimua indartuko dira eta harreman sozialak sustatuko dira, gizarteratzea bultzatuz honela.



25.Irudia. Ikastetxean duen eragin soziala, psikologikoa eta pedagogikoa

4.2. Egiatzatze empirikoa

Praktikuma egin dudana ikastetxeetan ikusi ditudan teknika psikologikoak aipatzera noa jarraian.

Praktiketan egon naizen ikastetxeetan teknika psikologikoak ikasle guztiak erabiltzen ziren, bai Berriazko Hezkuntza Premiak zituzten ikasleekin baita ikasgela arruntean zeuden ikasleekin ere. Teknika hauei esker ikasleek ikaskuntza bermatzea nahi zen, ikaskuntza akademikoa eta baloreetako ikaskuntza.

Ikasturte honetan egindako "Eskola Praktika 3" irakasgaietan, praktikak egin ditudan gela arruntean desagertzearen eta denbora kanpoaren teknika erabiltzen ziren.

Tutoreak desagertzea erabiltzen zuen adibidez, ikasle bat atentzioa deika negarrez garrasika hasten zenean. Irakaslea gerturatzen bazen ikasleak negarra ozenago egiten zuela ikusirik, egun batzuetan negarrez hasten zen momentuan bertan ez gerturatzea erabaki zuen irakasleak. Modu honetan konturatu zen irakaslea gerturatzen ez zenean, ikasleak helduaren arreta lortzen ez zuenez berehala isiltzen zela. Isiltzen zenean irakaslea gerturatzen zitzaion eta irakasleari zer gertatu zitzaion galdetu ondoren, irakasleak areagotu nahi zuen jarrera horren berri ematen zion ikasleari.

Denbora kanpoan bezalako teknikak asanbladako giroa asko oztopatzen zuen ikasleari edota ikaskideak gogor jotzen zuen edozein haurri aplikatzen zion. Ikasleek ikasgelako

arauak zein diren badakizkitez eta irakasleak abisu pare bat ematen ditu teknika hau aplikatu aurretik. Ikasleek kasurik egiten ez badute, orduan gelan dagoen aulkian esertzen dira ikasleak bost bat minutuz. Irakasleak ikasleak aulkira eramaten dituenean modu lasaian eta oihukatu gabe egiten du. Ikastetxean aurrera eramaten den denbora kanpoa mota bazterketa da beraz, errefortzurako bidea ekiditen da ikaslea ikasgelan dagoelako baino besteekin kontaktua mantentzen ez duelako. Dena den, irakasleak ikasleak egiten dituen jokabide alternatibo egokiak ere erreforzatzen ditu, asanbladan ongi dagoenean adibidez.

Kitzikatzaileak direlakoak ere erabiltzen zituen, gehienak hitzezkoak ziren “oso ongi”, “primeran”, “erakutsiko diezu beste lagunei?” eta keinuzkoak ere ugariak ziren, batez ere bostekoak ematea.

Aipatutakoaz gain ikasleen atentzioa erakartzeko teknika ezberdinak erabiltzen zituen praktiketan egon naizen tutoreak: txaloa jo, isildu, Argitxo deika ari balitz bezala egitea, eta giro lasaia sortzeko eta ikasleak euren izena noiz entzungo duten erne mantentzeko jolasa besteak beste. Horrez gain, Haur Hezkuntzako maila guztietan ikasleak lasaitzeko teknika gisa yoga egiten dute, irakasle guztiek ikasleen eta gurasoen harrera eta irteera zaintzen dituzte eta eguneroko errutinak egiten dituzte.

PTko gelan egon nintzenean, PTa Berariazko Hezkuntza Premiak zituen ikaslearen eskuinaldean esertzen zen eta ahozko nahiz keinuzko kitzikatzaile ugari erabiltzen zituen berarekin. Ikasle honi adibidez bostekoa ematea asko gustatzen zaio.

“Eskola Praktikak 2” egin nituen ikastetxean ere CREENako profesionalek zentroko orientatzaileari ikasle baten premiei erantzuteko erlaxazio teknikak burutzeko aholkatu zieten, eta ikastetxeak ikasle guztiekin yoga egitea erabaki zuen. Praktikaldi honetan landa eremuan dagoen hezkuntza bereziko gela alternatibo bat ezagutzeko aukera ere izan nuen. Gela alternatibo honetan zeuden bi ikasleen beharretara egokitzeko hainbat metodologia erabiltzen zituen haien tutorea zen PTko irakasleak, beti ere ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz eta egokitzapen curricularrean finkatutako helburuak lortzeko asmoz. Gela honetan adibidez ikasgelako argiztapena asko zaintzen zen, fotofobia zuen ikasle bat zegoelako. Horrez gain, PTko irakaslea mahaian beti ikasleen aurrez-aurre esertzen zen, berak egoeraren kontrola zuela adierazteko. Gainera, ikasle zehatz batekin adibidez, ikasleak momentuan beharrezkoa zen piktograma hartzen

bazuen goxoki bat ematen zitzaion, modu honetan ikasleak beharrezko piktograma hartzea lortu nahi zelarik. Aipatutakoaz gain, PTak ikasleen atentzioa lortzeko txalo bat jotzen zuen, nahiz eta ikasleek soinu honekin beti ez zuten erreakzionatzen.

Aipatutako bi praktikaldietan ordenagailuan erabiltzeko programak ikusi ditut eta programa hauek ikasleak hitzez positiboki erreforzatzen dituzte, gauzak egiten dituztenean “oso ongi”, “jarraitu horrela”, “txapeldun” bezalako hitzak esanez. Akatsen bat eginez gero, berriro saiatzeko eskatzen zaie ikasleei, beti ere modu positiboan.

Atal honekin amaitzeko, esan behar dut oso garrantzitsua ikusi dudala irakasleak esandakoa betetzea, modu honetan ikasleek irakasleak esaten duen hori beteko duela baitakite eta sinesgarritasuna ez baitu galtzen irakasleak. Ikasgelako arauekin ere gauza bera egin behar da, arauak zigortzeko izan beharrean elkarbizitza sustatzeko direla jakin behar da eta arau horiek ikasle guztiek bete ditzaten saiatu behar gara, arauak zerbaitetarako baitira. Arauak lan egiteko modu bat araudi proaktiboa¹⁵ izan daiteke. Guzti hau lortzeko irakasleak ikaskuntzaren jarrera positiboa izango du eta ikasle denak taldean beharrezkoak direneko sentimendua transmitituko du, ikaskideek taldeko partaide izatearen sentimendua indartuz. Horretarako, ikasleen esfortzua onartu eta baloratuko da eta taldekide ezberdinekin lan egitea bultzatuko da.

Praktikumean martxan jarri dituzten teknika batzuen argazkiak VIII. eranskinean ageri dira.

¹⁵ Araudi proaktiboa: Arauen antolaketan, prestaketan, erabilpenean eta balorazioan irakasleek eta ikasleek parte hartzen dute, modu honetan inplikazio gehiago ematen delarik. *Zer egingen dut berriro ere hau gertatu ez dadin?* gisako pentsamoldea defendatzen du. Elkarbizitza bilatzea nahi du eta orainean gertatzen dena aztertuz etorkizuneko egoerak ebatzen saiatzen da. Berriro ere hau gertatu ez dadin zer egin pentsatzean oinarritzen da. (Pérez, 2012)

ONDORIOAK ETA GALDERA IREKIAK

Gradu Amaierako Lanean zehar ikusi denez, ikasle guztien kalitatezko hezkuntzaren eskubidea bermatzeko eta ezberdintasuna aberastasun gisa ikusten duen inklusioa bultzatzeko funtsezkoak izanen dira ikastetxeko koordinazioa; gurasoen inplikazioa; ikasleen ikaskuntza modua ezagutu eta irakaskuntza indibidualizatua eskaintzea; eta ikasgelan aniztasuna lantzea. Modu honetan jarrera diskriminatzaileei aurre egingen zaie eta ikastetxeko nahiz gizarteko eskusioa dakarten egoerak ez dira suertatuko.

Ikastetxean ematen den esku hartzea eraginkorra izateko eta ikasleen ikaskuntza bermatzeko, esan bezala, ikasle bakoitzaren ezaugarriak ongi ezagutu behar dira. Horretarako, lagungarria izanen da profesional guztiek Berriazko Hezkuntza Premiak ezagutzea eta haiei nola erantzun jakitea. Horrez gain, ikastetxean profesionalen arteko aholkularitza eta talde lanari esker premia hauek dituzten ikasleen erantzuna antolatzea errazagoa izanen da, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak adibidez teknika ezberdinen berri eman baitiezaioke irakasleei. Aholkularitza hauetaz aparte, funtsezkoa izanen da profesional guztien formakuntza eta eguneratzea bultzatzea.

Berriazko premiei erantzuteko bideetako bat teknika psikologikoak erabiltzea denez, ikastetxeko tutore eta gainontzeko profesionalek teknika hauek ongi ezagutzea eta ongi kontrolatzea ezinbestekoa izanen da, teknika hauek praktikan jartzean alderdi ezberdinak izan behar baitira kontuan. Horregatik, argi eduki behar da teknikak hasi aurretik non gauden eta tekniken aplikazioari esker nora iritsi nahi dugun.

Ikastetxeko koordinazioa ere garrantzitsua izanen da profesionalek aurrera eramaten dituzten tekniken berri elkarri emateko, modu honetan ikastetxe mailan ikaslearekin egiten den esku hartzea bateratua izanen delako. Familiaren eta ikastetxearen arteko koordinazioa ere funtsezkoa izanen da ikaslearekin egiten den lanaren ildoak etxean jarraitzeko eta informazioa elkartrukatzeko.

Proposatu dudan ikastetxeko esku hartzeko protokoloari esker lan egoki bat aurrera eramateko pausuak idatzirik geratzen dira, ikastetxeko koordinazioa eta antolaketa errazten dielarik modu honetan.

Ikastetxean ikasleen inklusioa bermatzeko neurri guztiak kontuan hartu ondoren ikasleren batek CEI behar duela ikusten bada, proposamenean planteatutako

Curriculum Egokitzapen Indibidualerako dokumentu bateratuari esker, profesionalak dokumentu bakar batean eskura izanen dute haien esku hartzean egin behar dutena. Dokumentu hau googledrive bezalako sareko aplikazio batean egiten bada, CEI duen ikaslearen esku hartzean parte hartzen duten pertsona guztiekin partekatze arazorik ez da izanen eta uneoro jakinen da ze esku hartze egiten ari den, zein teknikekin eta ze aurrerapausoak ematen diren. Datu guztiak biltzeko baliagarria izateaz aparte, esku hartzen ari diren profesionalen autoebaluazioarako ere baliagarria izanen litzateke dokumentu bateratu hau.

Guzti honekin esan behar dut, lana egin baino lehen proposatutako helburu eta galdera guztiei erantzuna eman diedala eta gaiarekiko nuen ezagutza hedatu eta aberastu dudala.

Amaitzeko, hezkuntza mailan atal teorikoa eta praktikoaren arteko erlazioa egitea funtsezkoa denez, bi gauza aipatzea nahi nituzke: sarean lan egitea eta LOMCE.

Sare lanari dagokionez, aipatu behar da azken urteetan hainbat herrietan hezkuntzaren, osasunaren eta zerbitzu sozialen arteko lankidetzak ematen ari dela. Nafarroako Gobernuak 2013ko martxoan argitaratu zuen lankidetzako protokoloa elkarlan honen adierazgarria da. Olaztin, Burlatan eta Iruñeako Uhartean esate baterako sare lan hau burutzen da. Burlatan adibidez (Suspertu, 2012), haurren tratua txarrak bezalako gaiak lantzen dituzte sare lanean, baliabide profesional ezberdinen parte hartzea eskatzen duen gai bat delako eta koordinazioa eta egindako lanaren eraginkortasuna bermatzen duelako, kasuari aurre egiteko erresposabilitatea guztiek hartzen baitute. Profesional bakoitzak bere arloko ekarpenak eginez, guztien artean kasuari buruzko ikuspuntu globalago bat lortzen dute, beti ere datuen konfidentzialtasuna zainduz. Burlatako sare lanean adibidez, urteak aurrera egin ahala arazo eta erronka berriak aurkitu dituzte: informazioaren eta konfidentzialtasunaren gaia, profesionalen rolen arteko eztabaidak eta bullying kasuak besteak beste. Urteak aurrera egin ahala, nolakoa izanen da sare lanen hedapena?

2013ko abenduaren 10ean BOEn argitaratu zen *LOMCE legeari* dagokionez, haren aurka altxatu direnek, hasteko, arloan adituak direnei eta hezkuntza komunitateari aholkurik eskatu gabe lege hau txertatzea leporatzen diote Wertiri. Bigarrenik, legeak irakasgai *instrumentalei*, hau da, matematika eta hizkuntzei indarra ematen diola

esaten dute, *instrumentalak* ez diren irakasgaiei lekua kentzen diotelarik honela. Howard Gardnerrek proposatzen dituen inteligentzia anitzen lanketarekin zer gertatzen ari da orduan? Legedi berriak aurrera edo atzera garamatza? Hirugarrenik, ziklo amaieretan nazio mailan ikasleen eta ikastetxeen ezagutzak ebaluatzeko burutuko diren ebaluazio estandarizatuen eta ikasturtean zehar eginen diren azterketa “garbitzaileen” kontra egiten dute. Funtsean, legeak zentralizazioa (estatuak edukien %65 zehaztuko du gure kasuan) eta uniformizazioa bultzatu nahi dituela diote, ikasle eta ikastetxeen arteko lehiakortasuna bultzatuz honela.

2014ko martxoaren 1ean argitaratu zen BOEn LOMCE legearen Lehen Hezkuntzako Curriculuma. Haur Hezkuntzarako oraindik ez da ezer argitaratu, baina legediak egoera honen aurrean jartzen bagaitu, nik Gradu Amaierako Lan honekin proposatutakoak bere funtsa galduko luke. Ikasleen aniztasuna kontuan hartu behar bada eta ikasleen irakaskuntza indibidualizatua bultzatu behar bada, nola egin daiteke azterketa bera herrialdeko ikasle denei? Irakaskuntza prozesua ikasleen interesek gidatu beharko lukete eta ikasleak ebaluatzeko bide bakarra ez da azterketa bat egitea, are gutxiago ikasle guztiei azterketa berdina egitea, lanean aipatu dudan bezala ikasleekin lan egiteko eta haien ezagutza ebaluatzeko teknika ezberdinak baitaude.

BOE-n agertzen den LOMCE legediaren eta LOE legediaren artean II.Tituluko I.Kapitulua alderatuz gero, atal honetan aldaketa gutxi ematen direla antzeman daiteke. LOMCEk egiten duen berrikuntza bakarrenetakoa AFN-H duten ikasleak Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen taldean sailkatzea da. LOEk ikasteko zailtasunak zituzten ikasleen eskolatzeari buruz ezer esaten ez zuen arren, LOMCEk ikasle hauen eskolatzeta eta arretaren berri ematen du. Dena den, aipatzekoa da Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleentzat eskolatzeko irizpideak zein diren zehazten dituen arren, AFN-H duten ikasleen eskolatzeari buruz ez duela ezer esaten.

LOMCErekin amaitzeko, esan behar da, Berriazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleen eskolatzeta normalizazio eta inklusio printzipioa jarraituz egin behar direla esaten duela, administrazioak premia hauek ahalik eta azkarren antzeman beharko dituelarik. Baina, nola da posible irakasgai *instrumentalak*, zentralizazioa eta uniformizazioa bultzatzen dituen lege berberak normalizazio eta inklusio printzipioa aipatzea?

ERREFERENTZIAK

Apunteak

Esarte, S. (2010). *Oinarri psikologikoak: gizabanakoa eta gizarte ingurunea*. Iruñea: NUP.

Esarte, S. (2012). *Psikologia moduloa*. Iruñea: NUP.

Esarte, S. (2013). *Behar psikologikoak eskolan*. Iruñea: NUP.

Iza, L. (2010). *Hezkuntza erakundeak*. Iruñea: NUP.

Iza, L. (2012). Hezkuntza inklusiborako proposamen pedagogikoak. Iruñea: NUP.

Martinez, I. (2011). Hezkuntza prozesu eta testuinguruen behaketa eta analisisa. Iruñea: NUP.

Soto, R. (2011). *Garapen ebolutiboa eta ikaskuntza*. Iruñea: NUP.

Trebol, F. (2011). *Aniztasuna eta erantzun psikopedagogikoa*. Iruñea: NUP.

Trebol, F. (2013). *Eskolan esku hartzeko teknika psikologikoak*. Iruñea: NUP.

Eskuizkribua

Suspertu. (2012). *Red de profesionales de Burlada. Promoción del Buen trato a la Infancia y Adolescencia*.

Liburuak

Arruabarrena, I. (2007). *Haurraren babesa: eskola eginkizuna*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamendua. [<https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/7CDFC772-5F82-4F5E-8879-C69C9B550676/91990/DesproteccionEscuelaEUSK1.pdf> web orrian eskuragarri (2014/04/25)]

Calvo, A.; Martínez, A. (1999). *Técnicas y procedimientos para realizar las adaptaciones curriculares*. Madrid: Editorial Escuela Española.

Darretxe, L.; Zenitagoia, E. (2008). *Hezkuntza Bereziaren oinarri pedagogikoak* (9-36 orr.). Bilbo: UEU.

- Darretxe, L.; Gaintza, Z.; Sarasa, M. (2012) *Adimen-urritasuna edo autismoa Haur-Hezkuntzako gelan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Echeita, G. (2007). *Educación para la inclusión o educación sin exclusiones*. Madrid: Narcea.
- Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila. (2012). *Eskola inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/ad_juntos/16_inklusibitatea_100/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf web orrian eskuragarri (2014/05/11)]
- Hezkuntza, osasun eta gizarte politiketako saila. (2013). *Guía para profesionales. Protocolo de colaboración entre educación, salud y servicios sociales en la atención a la Infancia y Adolescencia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Lizaso, I.; Apodaka, M. (2008). *Giza garapen psikologikoaren ereduak I*. Bilbo: EHU. [http://www.buruxkak.org/liburuak_ikusi/464/giza_garapen_psikologikoaren_ereduak_i.html web orrian eskuragarri (2014/04/27)]
- Marrodán, M.J.; Balebona, J.M. (2012). *La calidad en las funciones del profesor de Pedagogía Terapéutica*. Madrid: ICCE.
- Olivares, J.; Macía, D.; Rosa, A.I.; Olivares, P.J. (2013). *Intervención psicológica. Estrategias, técnicas y tratamientos*. Madrid: Ediciones Pirámide.
- Pérez, L. (2012). *Nafarroako Komunitateko ikastetxeetan bizikidetzaren hobetzeko VI. Kanpaina. Ikasgelako arauak eta proaktibitatea. Diziiplina positiborantz*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. [<http://www.educacion.navarra.es/documents/27590/36893/Tratu+onez.pdf/43a5165f-0ffd-450f-97f9-043b126cbd88> web orrian eskuragarri (2014/05/17)]
- Segura, M. (2005). *Enseñar a convivir no es tan difícil*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Trebol, F. (2010). *Hezkuntza bereziaren oinarri psikologikoak. Aniztasunaren trataera*. Bilbo: UEU.

Artikuluak

Ruiz, M.V. (2010). El papel de la familia en la educación de alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 1- 9, (35). [http://www.csic.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_35/MARIA_VICTORIA_RUIZ_DIAZ_01.pdf web orrian eskuragarri (2014/05/14)]

Vergara, J. (2002). Marco histórico de la educación especial. *Estudios sobre educación*, 129-143, 2. [<http://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/45574/01520103000019.pdf?sequence=1> web orrian eskuragarri (2014/04/22)]

Legeak eta dekretuak

Estatuko buruzagitza (1990). Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo. *BOE*, 28927- 28942, (238) [<http://www.boe.es/boe/dias/1990/10/04/pdfs/A28927-28942.pdf> web orrian eskuragarri (2014/04/23)]

Estatuko buruzagitza (2006). Ley Orgánica de la Educación. *BOE*, 17158-17207, (106) [<http://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf> web orrian eskuragarri (2014/04/23)]

Estatuko buruzagitza. (2013). Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa. *BOE*, 97858-97920, (295) [<http://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf> web orrian eskuragarri (2014/05/27)]

Hezkuntza kontseilaria (2001). Resolución 402/2001, de 11 de mayo, del Director General de Educación, por la que se aprueban las instrucciones para la actuación del profesorado de pedagogía terapéutica en las etapas de Educación Infantil, Primaria y Secundaria. *BON*, 4663-4666, (72) [http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2001/72/Anuncio-1/ web orrian eskuragarri (2014/04/23)]

Hezkuntza kontseilaria (2008). Orden foral 216/2007, de 18 de diciembre, del Consejero de Educación, por la que se regula la evaluación y promoción del

alumnado que cursa la Educación Primaria. *BON*, (10)

[http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2008/10/Anuncio-0/ web orrian eskuragarri (2014/05/10)]

Hezkuntza kontseilaria (2008). Orden foral 93/2008, de 13 de junio, del Consejero de Educación por la que se regula la atención a la diversidad en los centros educativos de Educación Infantil y Primaria y Educación Secundaria de la Comunidad Foral de Navarra. *BON*, 8706-8717, (93)

[http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2008/93/Anuncio-0/ web orrian eskuragarri (2014/04/23)]

Hezkuntza kontseilua (2009). Resolución 47/2009, de 13 de febrero, de la Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación, por la que se dictan instrucciones que regulan la organización y funcionamiento del Programa de Currículo Adaptado (PCA) para el alumnado de Educación Secundaria Obligatoria que precisa medidas educativas específicas que le permitan alcanzar los objetivos generales de la etapa. *BON*, (37)

[http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2009/37/Anuncio-2/ web orrian eskuragarri (2014/05/10)]

Hezkuntza kontseilaria (2012). Orden foral 65/2012, de 18 de junio, del Consejero de Educación, por la que se regula la respuesta educativa al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de trastornos de aprendizaje y trastorno por déficit de atención e hiperactividad en Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de la Comunidad Foral de Navarra. *BON*, 8773-8775, (143)

[http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2012/143/Anuncio-0/ web orrian eskuragarri (2014/04/23)]

Hiztegiak

Elhuyar itzultzailea: http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp (2014/05/28)

Es-Eu itzultzaile automatikoa: <http://www.koldomitxelenabhi-gasteiz.hezkuntza.net/web/guest/itzultzailea-es-eu1> (2014/05/28)

UZEI sinonimoen hiztegia: <http://www.uzei.com/zerbitzuak-eta-produktuak/produktuen-katalogoa/sinonimoen-hiztegia/> (2014/05/28)

Webgrafia

Asociación Alanda, materialen egokitzapenak egiteko ideiak:

<http://www.asociacionalanda.org/web/> (2014/05/19)

Baldintzapen klasikoa, Pavlov:

<http://dbhokopsikologia.wordpress.com/2012/12/19/ikastea-1-baldintzapen-klasikoa/> (2014/04/26)

Baldintzapen operantea, Skinner:

<http://psikologiahezkuntzan.blogspot.com.es/2013/03/baldintzapen-operantea.html> (2014/04/26)

Darreche, L. *Hezkuntza bereziko talde profesionalaren lana birplanteatu*:

<http://didacticaeducacioninfantil.wikispaces.com/Leire+Darreche> (2014/05/11)

Eredu kognitiboa: <https://sites.google.com/site/elmodelocognitivo/> (2014/05/03)

Eredu psikologikoak: [http://www.psicologia-](http://www.psicologia-online.com/ESMUbada/Libros/ProfSanitarios/profesionales3.htm)

[online.com/ESMUbada/Libros/ProfSanitarios/profesionales3.htm](http://www.psicologia-online.com/ESMUbada/Libros/ProfSanitarios/profesionales3.htm) (2014/05/03)

Errefortzu eta zigorren azalpena: [http://hezkuntza-](http://hezkuntza-irakaskuntza.blogspot.com.es/2011/11/konduktismoa.html)

[irakaskuntza.blogspot.com.es/2011/11/konduktismoa.html](http://hezkuntza-irakaskuntza.blogspot.com.es/2011/11/konduktismoa.html) (2014/05/13)

Funciones del profesorado especialista en Pedagogía Terapéutica, Asociación

Asperga: <http://www.asperga.org/docs/tipo3/r7.pdf> (2014/04/23)

Garapenaren Hurbileko Zonaldea, Vigotski:

<http://vigotsky.idoneos.com/index.php/293538> (2014/04/26)

Garapenaren psikologia:

http://es.wikipedia.org/wiki/Psicolog%C3%ADa_del_desarrollo (2014/04/25)

Hezkuntza premien izendapenaren azalpena:

<http://fundamentospsicologicosgrupo7.blogspot.com.es/2013/01/tema-1-nee-nea.html> (2014/05/24)

Howard Gardnerren inteligentzia anitzak:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Teoría de las inteligencias múltiples](http://es.wikipedia.org/wiki/Teoría_de_las_inteligencias_múltiples) (2014/05/02)

Howard Gardnerren inteligentzia anitzak:

<http://www.monografias.com/trabajos12/intmult/intmult.shtml> (2014/05/02)

Howard Gardnerren inteligentzia anitzak:

<http://www.rtve.es/alcanta/videos/redes/redes-inteligencias-multiples-educacion-personalizada/1270216/> (2014/05/02)

Ikaskuntza esanguratsua, David Ausubel:

<http://www.euskonews.com/0400zbk/gaia40003eu.html> (2014/05/03)

Ikaskuntza esanguratsua, David Ausubel:

[http://eu.wikipedia.org/wiki/David Ausubel](http://eu.wikipedia.org/wiki/David_Ausubel) (2014/05/03)

Ikaskuntza soziala, Bandura:

<http://socialpsychology43.lacoctelera.net/post/2008/07/21/aprendizaje-social-teorias-albert-bandura> (2014/04/26)

Ikuskera kognitiboa: [http://es.wikipedia.org/wiki/Terapia cognitiva](http://es.wikipedia.org/wiki/Terapia_cognitiva) (2014/05/03)

LOMCE legeari buruzko argudioak: <http://www.escuela20.com/locme-ley-organica/articulos-y-actualidad/lomce-la-reforma-educativa-de-wert-2972-42-4465-0-1-in.html> (2014/04/25)

NHBBZ-CREENA. Jokabide arloa:

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/creena-conducta/home>
(2014/05/13)

Parrilla, A. *Gelakideak? Heziketa inklusiboaren gakoak ikasgelan:*

<http://didacticaeducacioninfantil.wikispaces.com/GELAKIDEAK%3F+HEZIKETA+IN+KLUSIBOAREN+GAKOAK+IKASGELAN> (2014/05/11)

Psikoanalisa: <http://www.slideshare.net/AURKITU/psicoanalisa> (2014/05/03)

Pigmalion efektua: [http://eu.wikipedia.org/wiki/Pigmalion efektua](http://eu.wikipedia.org/wiki/Pigmalion_efektua) (2014/05/11)

Teoria ekologikoa: http://www.iped.com.br/conteudo/04-80-S104/port_print.htm
(2014/04/27)

Teoria mekanizista: <http://www.slideshare.net/VictoorII/teora-contextual-de->

[vygotsky](#) (2014/05/27)

Teoria organista edo antolakuntzaren teoria:

<http://www.wikiteka.com/apuntes/teoria-organicista/> (2014/05/27)

ERANSKINAK

I. Eranskina. 0-6 urte tarteko ikasleen garapen psikologikoa.

“Adinei eta bilakaerako adinei buruz ematen den informazioa gida bat baino ez da. Haur bakoitzaren garapen fisikoak, emozionalak eta intelektualak bere erritmoa du. Adin bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea eta ulertzea interesgarria izan daiteke, baina helburua bada haurra behar bezala garatu eta haztea, nahitaezkoa da erne egotea eta haur bakoitza aintzat hartzea.” (Arruabarrena, 2010, 87)

Jarraian Martinezen (2011) garapenen taula ageri da. <http://www.hikhasi.com/artikulu/534> web orritik eta Nafar Gobernuak (1991) argitaratutako *3 eta 6 urte tarteko haurren garapen psikologikoa* liburuxkatik lortutako informazioarekin osastua izan zen.

9.Taula. 0-6 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa

Garapen psikomotorea			
Lehenengo zikloa	0-1	Burua eustetik ia-ia bakarrik ibiltzeko gaitasuna. Hau da, psikomotrizitate lodia garatzen da.	Bi legeen (zefalo-kaudala eta hurbil-urrunekoa) garapena handituz doa, oreka lortuz. Lehen urtean bilakaera handiena eta garrantzitsuena da. Bigarren eta hirugarren urteetan aldiz, gutxiago.
	1-2	Ibiltzearen ondorioz ingurua ikertzeko aukera ematen die. Marrazkiaren munduarekin lehen kontaktua izaten da.	
	2-3	Mugimendu kontrolatuaren hobekuntza (arropa jantzi eta erantzi, eskaileretan ibili), motrizitate finaren hasiera eta esfinterrak kontrolatzen hasten da.	
Bigarren zikloa	3-4	Nerbio sistemaren heltzearen garapena. Mugimenduen koordinazioa handiagoa da eta esku eta beso mugimendua handiagoa da.	Ziklo honetan mugimendua, eskuen trebetasuna eta marrazteko gaitasunen aurrerapen handia ikusten da, idazten hasteko ezinbestekoa dena.
	4-5	Mugimenduak hobetzen ditu, gutxiagotan eroriz eta eskuen trebetasuna hobetuz.	
	5-6	Gorputza menperatzen dute, mugimenduak zehatzagoak dira eta eskuen trebetasuna askoz hobeagoa da.	
Garapen kognitiboa			
Lehenengo zikloa	0-1	Heltze prozesuaren ondorioz, bilakaera asko ematen dira arlo kognitiboan eta ingurunean. Adibidez, sortzetiko erreflexuak, erreakzio zirkular primario eta sekundarioak eta buru eskema sekundarioen	Ingurunearekiko harremana zabalduz doa.

		koordinaketa.	
	1-2	Esperimentatzeko aukera zabaltzen da. Adibidez, erreakzio zirkular tertziarioak eta buru eskemen irudikapena dela eta, buru eskemen konbinazio berrien asmaketa.	
	2-3	Urte honetan ez dago hainbeste aldaketarik. Aurreko ezagutzak pentsamendu gehiago garatzea dakar eta emozioak adierazten dituzte.	
Bigarren zikloa	3-4	Jolas sinbolikoa agertzen da eta ikusten duena bakarrik ulertzen du.	Prozesu luzea da, irudimena erabiltzen dute eta ezagutzen dituzten gauzak kontuan hartzen dituzte. Mintzaira etapa honetan ezinbestekoa da.
	4-5	Egiazko gauzak ulertzen ditu zergatia ulertu gabe.	
	5-6	Ingurua ulertzen du eta hiztegia aberastu.	
Hizkuntzaren garapena			
Lehenengo zikloa	0-1	Jaiotzetik hurbileko pertsonetik harremanei esker inguruko soinuak imitatzen hasi eta hortik kontsonantez eta bokalez osaturiko hitzak esatera.	Ingurune pertsonen eraginez, mintzaira garapen egokian ematen da. Hasiera batean hitz solteak ikasten dituzte eta gero hitzak erlazionatzen dituzte.
	1-2	Hitz bat ongi esanez zerbait eskatu eta hortik aurrera, errepikapenaren bidez, hitz berriak ikasten dituzte testuinguru ezberdinetan erabiliz.	
	2-3	Hitzen kopurua bikoiztu esaldi osoak osatuz. Pertsonekin eta jostailuekin erabiltzen dituzte. 3 urterekin ongi hitz egiten dute.	
Bigarren zikloa	3-4	Gero eta esaldi luzeagoak erabiltzen ditu eta hiztegia aberasten doa. Ezezko esaldiak erabiltzen dituzte.	Akatsak gutxitzen diren bitartean esaldiak eta hiztegia aberasten doaz. Haur bakoitzak bere erritmoa du.
	4-5	Ahoskera hobetzen da. Aurreko etapako akatsak gainditzen ditu, esaldiak luzatuz. Hiztegia gehiago hobetzen du.	
	5-6	Fonemak zuzen erabiltzen ditu eta akatsak gutxituz doaz.	
Garapen afektibo soziala			
Lehenengo zikloa	0-1	Hasieratik sozializatzeko nahia agertu, atxikimendua, sentimenduen agerpen fisikoak (irria eta negarra). Pertsonak ezagutu eta honen gaineko hurbilketa edo urrunketa.	Sozializazioa agertzen da baloreak eta arauak ulertuz.
	1-2	Sozializazioa handitzen da eta arauak eta baloreak barneratzen hasten dira.	
	2-3	Erlazioak eta identitate pertsonala gehiago ezagutu. Baloreak eta arauak sakonkiago barneratu.	

Bigarren zikloa	3-4	Zenbait egoeratan jeloskortasuna ager daiteke. Eguneroko jarduera gehienak bakarrik egiteko gai da: eskuak garbitu, botoi handiak askatu.	Eguneroko jardueretarako autonomia bilatzen doaz.
	4-5	Mundua ulertzen hasten da eta nortasuna azaltzen du. Eguneroko jarduera gehiago egiten ditu.	
	5-6	Familia harremana oso positiboa da, laguntzeko prestutasuna dute eta heldu ezezagunekin hitz egiteko gai da.	
Komunean			
Lehenengo zikloan	0-1 urtean garapen guztietan aurrerapausorik handiena ematen da. Hortik hiru urteak arte garapen horiek perfektionatzen dira. Guztiek inguruko harremana beharrezkoa dute garapen egoki batean bilakatzeko.		
Bigarren zikloan	Mugimendua, eskuen trebetasuna, marrazteko gaitasuna, jolas sinbolikoa, irudimena eta mintzaira finkatzen dira. Gainera, hizkuntzako akatsak gutxitzen dira, esaldiak luzatzen dira eta hiztegia aberasten da. Horrela autonomia lortzen doaz.		

II. Eranskina. Piageten garapen genetiko kognitiboa.

Esarte (2012) eta Soto (2011) erreferentzietatik lortutako informazioa.

Jean Piaget 1896.urtean jaio zen Suizan eta XX. mendean zehar umeen psikologiaren inguruan topatu daitekeen egilerik garrantzitsuenetarikoa da. Teoria espistemologikoa azaltzen du, hau da, ezagutzaren jatorria eta garapena azaldu nahi ditu. Umeek pentsamendu logikoa lortzeko hainbat estadio garatu behar dituztela dio.

Piagetek Baldwin-en lanetik kontzeptu ugari hartzen ditu eta adimena, ezagutza eta pentsamendua sinonimotzat ditu. Adimenean hiru alde bereizten ditu:

- **Edukiak:** Jokabidean islatzen diren azalpenak dira. Datu kuantitatiboak dira eta urteak pasa ahala gehitu egingo dira.
- **Egiturak:** Adimena antolatu egiten dute. Ingurunetik datuak jaso ondoren sortzen diren multzoak dira. Egitura kognitiboei dagokionez, adinean aurrera egin ahala aldaketa kualitatiboak ematen dira, eta aldaketa horiek hainbat estadiotan islatzen dira. Umeak estadio batetik bestera pasa ahal izateko dituen eskemak erabili behar ditu eta ondorengo estadioaren eskemetan barneratu.
- **Eskema:** Ekintza guztiek komunean dutena da. Hasieran portaera erreflexuak dira ekintzak, baina errepikatzean ekintza operazionalak bihurtzen dira. Garapenari esker umeak eskema berriak sortzen ditu eta aurretik existitzen direnak berrantolatzen ditu. Aldaketa guzti hauek segida batean ematen dira eta estadioetan islatzen dira.

Asimilazioa edo barneratzea ingurunearekiko organismoaren ekintza da eta egokitzapenarekin du erlazioa. Hala, inguruneko informazioa aldeztu aurretiko kategorietara moldatzen da eta egitura kognitiboa ez da aldatzen. Subjektua bere ezagutza egiturak aldatuz eta egokituz doa barne oreka lortuz. Modu honetan inguruneak ekartzen dizkion arazo eta informazio berriei aurre egin ahal izango die. Imitazioaren bidez irudikatzen du.

Piageten ezagutzaren garapenaren estadioak ordena berean ematen dira, estadio bakoitza adin tarte batekin erlazionatzen da, estadioen artean harreman hierarkikoa dago aurreko estadioaren egiturak hurrengo estadioaren egituretan integratzen

direlako, eta estadio batetik bestera pasatzea mailaz mailakoa da. Aipatzekoa da haur bakoitzak bere adimenaren garapen berezia duela eta haurren artean aldaketak daudenez, Piagetek proposatutako adin tarteak orientatiboak direla. Lau estadio bereizten dira:

- Adimen sentsorimotorearen estadioa (jaiotzetik bi urteak arte). Estadio hau erreflexuekin hasten da eta funtzio sinbolikoak agertzean bukatzen da. Urte bat baino gutxiago duten umeentzat irudi batzuetaz osatuta dagoen mundua agertu eta desagertu egiten da. Bigarren urtean, objektuaren bila joateko gaitasuna izango dute hurrek, eta horri esker, kausaltasuna zer den ikasten dute. Piageten ustez hasieran ez dago desberdintasunik umearen barne eta kanpo munduen artean. Estadio honek sei azpi estadio ditu:

10.Taula. Piageten lehenengo estadioaren azpiestadioak.

Estadioa	Ezaugarriak
Erreflexu ariketa azpi estadioa (0-1 hilabete)	Haurrek beren jaiotzetiko erreflexuak erabiltzen dituzte eta haiekiko nolabaiteko kontrola hartzen dute. Adb: umeak bere ahora edozein gauza eramaten du.
Lehenengo mailako erreakzio zirkularrak (1-4 hilabete)	Umeak kasualitatez plazera ematen dion jokoera bat errepikatzeko joera izango du. Lehenengo erreakzioa deitzen da bere gorputzetik sortzen delako. Adb: umeak hatz potoloa kasualitatez ukitzen du, horrek zupatzeko erreflexua martxan jartzen du eta plazera sentitzen duenez erantzuna errepikatzen saiatuko da.
Bigarren mailako erreakzio zirkularrak (4-8 hilabete)	Umeak kasualitatez zerbait interesgarria edo atsegina egiten du. Ekintza hori behin eta berriz errepikatuko du ondorio bera lortzeko. Bigarren mailakoa da umearen gorputzetik kanpo gertatzen delako. Adb: ganean jarritako zerbait mugitu.
Bigarren eskemen koordinazio positiboa (8-12 hilabete)	Umeak bere ekintzak koordinatzen dituen heinean nahita eginiko ekintza bihurtzen da. Gertakariak aurreikusten hasten da, eta aurretik eginiko eskemak erabiltzen hasten da. Adb: gelan ikusten duen jostailu bat hartzera joan.
Hirugarren mailako erreakzio zirkularrak (12-18 hilabete)	Umea gertakari berriak sortzen hasten da. Hirugarren erreakzioak deitzen zaio esploratzeko xedea duelako. Adb: ume batek kaxa bat ikusten du eta harantz abiatuko da, hantxe etzango da eta gero bere burua ganean jarriko du eta barruan sartzen saiatuko da.
Arazo txikietarako irtenbideak aurkitzea (18-24 hilabete)	Arazoen irtenbideak nola aurkitu pentsatzen hasten dira eta horren ondorioz ekintza eta ondorioak aztertzen dituzte. Arazo sinpleak konpontzeko gaitasuna.

- Eragiketa aurretiko pentsamendua (2-6 urte). Umeak heldua imitatuz hizkuntza ikasten du, bere garapenerako aurrerapauso handia izanik. Bere buruarekin eta besteekin komunikatzeko gaitasuna garatzen duenez, mundu soziala eta barne mundua sortzen dira. Umearen pentsamendu mota honetan animismoak, artifzialismoa eta kausaltasuna agertzen dira.
- Eragiketa konkretuen estadioa (7-11 urte). Umea logikaren jabe egiten da, arrazoitzeko garaia izanik. Eragiketa mentalak egiteko garaia ere ematen da eta alor sozialean kooperatiboa bihurtzen da, aurreko estadioko egozentrismoa gaindituz.
- Eragiketa formala (12 urteetatik aurrera). Adimenaren garapena estadio honekin amaituko da, baina hori nerabezarotik aurrera gertatuko da. Une honetatik aurrera eragiketa formalak egin daitezke, hau da, ikusi eta manipulatu ezin daitezkeen ariketak. Horrez gain, teoria abstraktuak egiteko ahalmena garatuko da eta norberak bere filosofia, politika eta estetika sortzen dituzte. Nerabezaroan egozentrismoa metafisikoa dela planteatzen da.

III. Eranskina. Vigotskiren teoria soziokulturala.

Esarte (2012) eta Soto (2011) erreferentzietatik lortutako informazioa.


Vigotskik giza garapena testuinguru sozialaren barnean kokatzen du eta testuinguruarekin lotutako ikuspegia planteatu zuen lehen aldiz.

Autore sobietar honek kulturak garapenean duen eragina aztertzean jarri zuen interesa, umeak testuinguru soziokulturalaren eta historikoaren eragina duela eta haurrek testuingurua alda dezaketela uste duelarik. Haurren garapen psikologikoa emateko beraz, besteekin harremanetan egotea beharrezkoa dela dio, horretan zeinuak eta hizkuntzak paper garrantzitsua jokatuko duelarik. Hitz gutxitan, Vigotskik pentsamendua eta kontzientzia beste pertsona batzuekin egindako elkarrekintzatik sortzen dela dio. Horrela, lan kooperatiboaren bitartez, natura menperatu eta eraldatu egiten da (zeinuak dira horretarako tresnak) eta zeinuak barneratzean pentsamendua sortzen da.

Vigotskik kontzeptu propioak asmatu zituen:

- Formazio bikoitzaren legea. Lege honen arabera funtzio psikologiko gorenak bi aldiz agertzen dira, lehenengo maila sozialean (pertsonek artean, maila interpsikologikoan) eta gero maila indibidualean (maila intrapsikologikoan). Funtzio psikologiko gorenak gizakien arteko harremana bezala sortzen direla dio. Mintzaira garatzeko adibidez, harremana ezinbestekoa izanen da, guk ez baitugu hitz egiten guri lehenago hitzik egiten ez badigute. Kanpo eragiketa batek barne berrerabilera eragingo du beraz.
- Berehalako garapen esparrua. Kontzeptu honen bidez garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremana azaldu nahi du Vigotskik. Berehalako garapen esparrua, garapen maila errealaren eta garapen maila potentzialaren arteko distantzia da. Giza harremanaren bidez helduok haurren garapen psikologikoaren eragin ona izan nahi badugu, haurren berehalako garapen-esparruan eragin behar dugu. Autore honek bi garapen maila bereizten ditu: alde batetik lortutako garapena edo garapen erreal (inoren laguntzarik gabe egiten dituen eragiketak) eta bestetik garapen maila potentziala (norbera baino helduagoak diren beste pertsona batzuen laguntza egokiaren bitartez egiten

dituen eragiketak adierazten dutena). Berehalako garapen esparruan umek betebeharrak jakin batzuetarako gaitasuna erdi garaturik izango dute eta irakaskuntza egoki baten bidez gaitasunak guztiz garatuko dituzte, imitazioa oinarritzko jarduerak izanik.



26. Irudia. Vigotskiren Berehalako Garapen Esparruaren teoria.

(<http://vigotsky.idoneos.com/index.php/293538>)

IV. Eranskina. Aniztasunari erantzuteko neurriak.

11.Taula. Aniztasunari erantzuteko neurriak (Marrodán eta Balebona, 2012, 34)

MEDIDAS ORDINARIAS DE ATENCIÓN A LA DIVERSIDAD PARA TODO EL ALUMNADO	<ul style="list-style-type: none"> • Proyecto Educativo del Centro • Plan de Convivencia • Plan de Acción Tutorial • Plan de Orientación Académica y Profesional • Repetición de Curso • Trabajo con Familias • Apoyo en grupo ordinario • Agrupamientos flexibles • Refuerzo Instrumental • Programas para el éxito escolar • Organización de espacios y tiempos • Optatividad • Agrupamiento por ámbitos
MEDIDAS PARA EL ALUMNADO CON DIFICULTADES ESPECÍFICAS DE APRENDIZAJE Y CONDICIONES PERSONALES O DE HISTORIA ESCOLAR	<ul style="list-style-type: none"> • Programa de refuerzo en sustitución de una materia optativa • Programa de refuerzo de materias no superadas • Plan específico personalizado para alumnos con materias sin superar • PROA • Diversificación Curricular • Programas de Cualificación Profesional Inicial • Aulas hospitalarias
MEDIDAS PARA ALUMNOS DE INCORPORACIÓN TARDÍA	<ul style="list-style-type: none"> • Aulas de Inmersión lingüística • Aulas de acogida • Tutoría de acogida • Flexibilización del periodo de escolarización
MEDIDAS PARA EL ALUMNADO CON NECESIDADES EDUCATIVAS ESPECIALES	<ul style="list-style-type: none"> • Aulas específicas para alumnos con TEA en centro ordinario • Flexibilización del periodo de escolarización • Apoyo especializado • Adaptaciones Curriculares Significativas
MEDIDAS PARA EL ALUMNADO DE ALTAS CAPACIDADES	<ul style="list-style-type: none"> • Programa de Enriquecimiento instrumental • Ampliación curricular • Flexibilización del periodo de escolarización

V. Eranskina. 47/2009, 216/2007 eta 93/2008 Foru Dekretuetan Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta Lehen Hezkuntzarako arautzen den ebaluatzea eta zikloz aldatzea.

Erreferentzia bibliografikoa: Iza (2012)

EBALUAZIOA HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN (47/2009 FA eta 216/2007 FA)	
	LEHEN HEZKUNTZA
EZAUGARRI OBORORRAK	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio hertzailea, etengabea, orokorra eta gelako eguneko zereginen murgildurik. Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioa, ikasketa-prozesuaren ebaluazioa eta irakaslearen hezkuntza-praktikaren ebaluazioa.
TEKNIKAK	<ul style="list-style-type: none"> Ikaslearen azterketak Ikasketak zuzena eta sistematikoa
GARAPEN UNEAREN ARABERA	<ul style="list-style-type: none"> Hasiarrokia, etengabekoa eta azken ebaluazioa
KALIFIKAZIOEN ESKALA	<ul style="list-style-type: none"> Ikasketak prozesuaren balorazioa Kualitatiboa izan da.
ZIKLOZ IGAROTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Agortze automatikoa Haur Hezkuntzako bigarren zikloak Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklora

EBALUAZIOA ETA ZIKLOZ IGAROTZEA ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK DAUDENEAN (47/2009 FA, 216/2007 FA eta 93/2008 FA)	
	LEHEN HEZKUNTZA
ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK	<ul style="list-style-type: none"> Zikloaren edozein unetan hartuko dira, beharriaren atzeman bezain laster. Irizpide hauek kontuan hartuko dira: ikasketak errekuperatzeko behar den denborara egokitzea; ohiko taldean ahalik eta gehien integratu eta ikasketak errekuperatzeko behar den denborara egokitzea; ohiko taldean ahalik eta gehien integratu eta ikasketak errekuperatzeko behar den denborara egokitzea; ohiko taldean ahalik eta gehien integratu eta baldintzatzen duten alderdiak izanen dira neurri horien ardatz.
EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Curriculum neurriekin egiten diren arloak ebaluatzen kontuan hartuko dira neurri horietan finkatutako ebaluazio irizpideak. Curriculum neurriekin egiten diren arloak ebaluatzen kontuan hartuko dira neurri horietan finkatutako ebaluazio irizpideak.
KALIFIKAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Curriculum neurriekin egiten diren arloak eskala arruntaren bidez kalifikatuko dira: G, N, O, OO, B. Neurria hezkuntza-indartzea izanez gero, kalifikazioari III siglak gehituko zaizkio. Curriculum egokitzapen garrantzitsuen kasuan, CEG siglak eta egokitzapena dagokion ziklora erantsiko da.

EBALUAZIOA ETA ZIKLOZ IGAROTZEA ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK DAUDENEAN (47/2009 FA, 216/2007 FA eta 93/2008 FA) (2)	
	LEHEN HEZKUNTZA
HEZKUNTZA-SISTEMARA BERANDU SARTU	<ul style="list-style-type: none"> Haur Hezkuntzan berandu sartzen diren ikasleak adinaren arabera dagozkien mailatan eskolatuko dira, eta beharrezkoak diren indartze neurriak hartuko dira eskolan integratzeko eta beren defasetik errazago oneratzeko, defasetik bada.
ZIKLOZ IGAROTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Haur Hezkuntzako etapari ikasitxe arruntetan beste urtebete egon ahal dira eskolatuta, baldin eta horrela beren gizarte eta hezkuntza integrazioa bideratzen bada, betiere gurasoen edo legezko ordezkarien adostasunarekin.
GAITASUN HANDIKO IKASLEAK	<p>Ikasketak espedientean: "Nahitazko eskolatzaldiraren mailgutzat";</p> <ul style="list-style-type: none"> LHn urtebete lehenago sartu bada, "Aurrerapena" hitza gehituko da. LHn edo BHn "Murrizketa" hitza gehituko da; murriztu den maila edo kurtsoa eta neurri hori baimendu den eguna ere jarriko da.

IKASKUNTZAREN EBALUAZIO PROZEDUREI BURUZKO ZEHAZTAPENAK IKASTEAREN NAHASMENDUENGATIK ETA ARRETA FALTAGATIKO NAHASMENDUARENGATIK (HIPERAKTIBITATEAREKIN) BERARIAZKO HEZKUNTZA PREMIAK DITUZTEN IKASLEEN KASUAN (65/2012 FA)	
<ul style="list-style-type: none"> Egokitzapenak egiten dira ikasketak ebaluatzeko prozeduretan. Neurriak <ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio-proba mota desberdinak erabilzea Ebaluazioarekin zuzenean lotutako alderdiak: <ul style="list-style-type: none"> Behar den denboraz abisatzea probak egiten direla Ahozko eta idatzizko probak konbinatzea Proba idatziak: <ul style="list-style-type: none"> Test motako erantzunekin, lehenetasunez Irrekiagoak diren erantzunekin (gehiago idatzea eskatzen dutenekin) Galdereetan gako-hitzak nabarmentzea Ikasleei denborara gehiago utzea azterketa bukatzeko Egiaztatzea ea ikasleek galdarak ulertzen dituzten eta zalantzak argitzea Ariketa onretatu aurretik gainbegiratzea ea galdara guztiak erantzun dituzten ... 	

27. Irudia. Ebaluazioa eta zikloz igarotzea

VI. Eranskina. Guraso bilera antolatzeako fitxa.

Trebol (2011) erreferentziatik hartua.

Gurasoekin izango dugun bilera aurretik prestatzea funtsezkoa izango da etekin handiagoa ateratzeko.

• BILERA AURRETIK

- Zirkular baten bidez bileraren data, ordua eta iraupena adostuko ditugu ikaslearen gurasoekin. 30 minutuko bilerak egin beharren, hobe izango da 20 minutukoak prestatzea eta 10 minutuko aldea izatea azkeneko gauzak lotzeko eta atseden pixka bat hartzeko.
- Gai ordena erabaki. Gogoan eduki behar dugu bileraren helburua informazioa elkartrukatzea dela.
- Ikaslearen inguruan dugun informazioa apuntatu: datu sozio-demografikoak (telefonoa, gurasoen izenak).
- Bilerara eramango dugun materiala prestatu.
- Bileran egonen diren espezialisten artean aurre-bilera bat egitea, hitz egingo dutenaren ingurukoak adosteko.
- Bilera tokia aurretik prestatu: aulkiak jeitsi, erratza pasa, mahaia antolatu.
- Lehenengo guraso bikotearen bila atarira joango gara, eta azkenak bertan agurtuko ditugu.

• BILERA BITARTEAN

1. Bilera hasi aurretik egin beharrekoak:

- Guraso bakoitza bere izenez agurtu
- Gogoratu adostutako bileraren iraupena
- Bileraren zergatia gogoratu: gurasoek gai berri bat proposatzen badute, hori gai ordenaren azkeneko puntu bezala aipatuko da edo momentuan adostuko da gai hori lantzea eta aurretik adostutako gai ordena beste bilera batetan lantzea.

2. Bilera bitartean egin beharrekoak:

- Gidoia jarraituko dugu. Ez gara haritik aterako gurasoek bere eremura eramango baitigute.
- Adostutako idatziz jasoko dugu.
- Time-Control: aldi oro denboraren kontrola egingo dugu.

3. Bilera bukaeran egin beharrekoak:

- Adostutakoa birgogoratuko dugu, horretarako idatziz jasotakoa erakutsiko diegu eta korreoz bidaliko zaie kopia bat izan dezaten.
- Hurrengo bilerako data adostuko da.

- Asetasun maila neurtzeko galdetegia pasako diegu: edukiak egokiak izan dira?, iraupena egokia izan da?, azalpenak argiak?, emandako azalpenak arazoei aurre egiteko egokiak dira?, iradokizunak.
- Gurasoak agurtuko ditugu.
- Lekua zegoen bezala utziko dugu: pertsianak jeitsi eta argiak itzali.

• BILERA ONDOREN

- Datuak agendara pasako ditugu
- Bileran gure lanaren inguruan adostutakoa egiten hasiko gara
- Hurrengo bilera prestatuko dugu: gurasoei bidaltzeko zirkularra prestatu.
- Ikaslearen agendan hurrengo bilerako data idatzi.

12.Taula. Bilera fitxa

BILERAREN DATUAK		
Ikaslearen izen-abizenak:		
Data:	Tokia:	Bileraren iraupena:
Parte hartzaileak:		
Ama _____	Aita _____	
Irakaslea _____	Espezialista _____	
BILERAREN ZERGATIA		
JORRATUTAKO GAIAK		
ADOSTUTAKOAK		
-IRAKASLEA-k egin beharrekoak:		
-GURASO-ek egin beharrekoak:		
-IKASLEA-k egin beharrekoak:		
HURRENGO BILERA		
Data:		
Zergatia:		
Jorratuko diren puntuak:		

VII. Eranskina. Maila curricularra neurtzeko taulak. (Trebol, 2010, 306-309)

HHn curriculum-maila neurtzeko taulak			
3-4 urte	Helburuak	Bai	Ez
<i>Norberaren nortasuna eta autonomia</i>			
Ohiturak			
	Bere kabuz jaten du		
	Jaten amaitu arte egoten da mahaian eserita		
	Zikin sentitzen denean garbitzen da		
	Esfinterrak kontrolatzen ditu		
	Bere gauzak ordenatzen ditu		
	Gelako materialak ordenatuta daude		
	Hasten dituen lanak bukatzen ditu		
	Azapenetara adi egoten da		
	Atropa bere kabuz jantzen du		
<i>Psikomotrizitatea</i>			
	Trebatasunez mugitzen da		
	Eskailerak igo eta jaisten ditu		
	Aginduz gero mugitzen hasi eta gelditzeko gauza da		
	Haren mugimenduetan koordinatuta daude		
	Aurrerantz eta atzerantz mugitzen da		
	Gorputz-jarrerak bereizten ditu		
	Paper zati txikiak atzamarrez txikitzen ditu		
	Artziak erabiltzen ditu		
	Lateralitatea definiturik dauka		
<i>Inguru fisiko eta soziala</i>			
Jarrerak			
	Normalean bakarrik dago		
	Bat-batean ezartzen ditu harremanak besteekin		
	Besteen arreta bereganatu nahi izaten du		
	Irakaslearekin harreman hurbila dauka		
<i>Eskolarako egokitzapena</i>			
	Arauek onartzen ditu		
	Bere ikasgela zailtasun gabe aurkitzen du		
	Gelako materialak non dauden badaki		
	Gelako txokoetan zehar bere kabuz mugitzen da		
<i>Jolasarekiko jarrera</i>			
	Gukxian jolasten du		
	Lagunen ekintzak imitatzen ditu		
	Patioan maisu/maistra biatzen du		
	Berehala haserretzen da		
<i>Komunikazioa eta irudikapena</i>			
Hizkuntza			
	Erraz komunikatzen da irakasle eta ikaskideekin		
	Elkarriketan parte hartzen du		
	Olerki laburrak errezitatzen ditu		
	Azajen-oharrak ulertzen ditu		
	Ipuin baten muina ulertzen du		
	Ahosierra zuzena dauka		






4-5 urte	Helburuak	Bai	Ez
<i>Norberaren nortasuna eta autonomia</i>			
Ohiturak			
	Zapi bat bieltzen du zikin dagoena garbitzeko		
	Eskuak eta aurpegia garbitzen ditu		
	Mukiak zapi batez garbitzen ditu		
	Botoliak lotu eta askatzen ditu		
	Jateko tresna egokiak erabiltzen ditu		
	Hortzak garbitzen ditu		
	Komunera denborarekin jolaten da		
	Komuneko tanga hustuizten du		
	Zapatiak ongi jartzen (dagokion olinean) eta loizen ditu		
<i>Psikomotrizitatea</i>			
	Korrika egitean irakasleak esaten dionean, norabidea aldatzen du		
	Zutik mantentzen da oin baten gainean 4-8 segundotan		
	Eskailerak jaltsi eta igoitzen ditu oinak tartekatuz		
	Trizikloz dabilenean izkina bati buelta ematen dilo		
	Oin batekin salto egiten du		
<i>Kognizioa</i>			
	Eskatzen zaion objektu kopuru zehatza hartzen du		
	Gizaki edo animalia bat marraztean ezaugarri morfologiko nagusiak agertzen ditu: burua, enborra, gorputz-adarrak		
	Forma geometriko bat alpatu eta forma hori duten gauzak esaten ditu		
	Bere urtebetetze-eguna zein den daki		
4-5 urte	Helburuak	Bai	Ez
<i>Inguru fisiko eta sozialak</i>			
Jarrera			
	Barkamena eskatzen du inork esan gabe		
	Baimena eskatzen du bestein gauzak hartzeko		
	Hainbat kanta, aho-korapilo, olerki eta dantza interpretatzen ditu		
<i>Eskolarako egokitzapenak</i>			
	Eskolatik behatzailerik gabe paseatzen da		
	Gelako materiala zainitzen du		
	Eskolako gune garrantzitsuenak kokatzen ditu		
	Ordu desberdinak ezberdintzen ditu (buzkalordua, hamaiketakoa, ataria...)		
	Gelako materiala dagokion tokian kokatu edo gordetzen du		
<i>Jolasarekiko jarrera</i>			
	Txandak errespetatzen ditu		
	Taldeko jolasetan integratzen da		
	Ikasleak errespetatzen ditu		
	Jokoetan rolak aldatzeko gai da		
	Jostailuak konpartitzen ditu		
	Aktiboki jolasetan parte hartzen du		

28. Irudia. Maila curricularra neurtzeko taula (1)

VIII. Eranskina. Praktikumean Berariazko Hezkuntza Premiak zituzten ikasleekin erabili izan dituzten materialak eta bestelakoak.



30.Irudia. Landa eremuko hezkuntza bereziko gela. Zentzumen anitzak lantzeko materiala eta gelako korroaren txokoa.



31. Irudia. Ikastetxe arrunta. Hitz egiteko ipuinak, gelako hiztegia lantzeko ariketa, gelako fitxa egokitua eta gelakideen izenak lantzeko ariketa.




32. Irudia. Ikastetxe arrunta. Ikasleekin komunikazioa bermatzeko norbanakoaren ipuina, familiako argazkien liburuxka, eta jolasaren bidez hizkuntza eta zenbakiak lantzeko dadoa.

IX. Eranskina. Eskola garaiko nahaste psikoebolutiboak eta haien hezkuntza-erantzunerako teknikak.

Erreferentzia iturriak: Trebol (2010) eta Iza (2012). Izak, aldi berean, ondorengo erreferentziatik hartu zuen informazioa: Aierbe, A. (2008). *Esku-hartze psikopedagogikoa garapen nahasteetan*. UPV/EHU

Eskolako-garaiko nahaste psikopedagogikoak sailkatzeko modu ezberdinak daude. Jarraian, Trebolek (2010) planteatzen dituen nahasteen bi sailkapen adieraziko ditut. Gradu Amaierako Lan honetan bigarren sailkapenean oinarritu naizela esan behar dut.

- Nahastea sortu duen eragilearen ikuspegitik egindako sailkapena.
- Eskolan gehien agertzen diren nahaste psikoebolutiboen sailkapena.



33. Iurdia. Eskola garaiko nahaste psikoebolutiboak nahaste sortu duen eragilearen ikuspegitik.

13.Taula. Eskolan gehien agertzen diren nahaste psikoebolutiboen sailkapena

- | |
|--|
| <p>a) Irakurketa- eta idazketa-prozesuari loturiko nahaste nagusiak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Arreta-gabezia 2.- Dislexia 3.- Hiperaktibitatea 4.- Lengoaiaren mugaketa esanguratsua edo lengoaiaren nahaste zehatza <p>b) Harreman edo portaerari loturiko nahaste nagusiak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Nahaste psikosomatikoak 2.- Garapenaren nahaste orokorrak edo Autismoaren Espektroko Nahasmendua 3.- Atzerapen mentala 4.- Down-en sindromea 5.- Mugimen-arazoak eta garun-paralisia 6.- Supergaitasuna |
|--|

Ikastearen nahasmenduak

Definizioa: Multzo heterogeneo bat da: dislexia, disortografia, disgrafia eta/edo diskalkulia.

Hezkuntza-erantzuna: Curriculum egokitzapen ez esanguratsua, metodologian eta ebaluazio prozeduretan eginen dira egokitzapenak.

Metodologia: Era askotako metodologia bultzatuko da ikasleen autonomia, parte hartzea eta autoerregulazioa handitzeko. Proiektuen araberrako ikaskuntza, lankidetzataldeak eta IKT erabiltzea adibidez. Ikaskuntza motibagarria eta esanguratsua izanen da, bizipenei lotua.

Ebaluazio prozedura: Behar den denboraz abisatzea probak eginen direla; ahozko eta idatzizko probak konbinatzea; test motako probak; galderetan gako hitzak nabarmentzea; ikasleei denbora gehiago uztea azterketa bukatzeko; egiaztatzea ea ikasleek galderak ulertzen dituzten eta zalantzak argitzea; ariketa entregatu aurretik gainbegiratzea ea galdera guztiak erantzun dituzten; nolabait ere egindakoa eginahala baloratzea, prozesuan zehar emandako esfortzua baloratuz.

Dislexia

Definizioa: Irakurketa-idazketa prozesuan atzerapena ekartzen duen nahasmena da. Atzerapena ekartzeak ez du ezintasuna esan nahi.

Hezkuntza-erantzuna: Materialak, metodologia, ebaluazio prozedurak, emoziozko eta gizarteko alderdiak eta berariazko programak hartuko dira kontuan.

Materialak: Teknologiaz lagunduriko planteamendua. Grabagailuak, MP4 formatua eta antzeko teknologiak erabiltzea; ordenagailua eta zuzentzaile ortografikoa erabiltzea; irakasleak dioena idazteko eta idatzizko testuak irakurtzeko softwareak; ikus-entzunezko materiala erabiltzea jakintza eskuratzeko ikasleek irakurketa bakarrik ez baliatzeko; letra handiz eta argiz idatzitako materialak ematea.

Metodologia: Zentzumen anitzeko irakaskuntza. Irakaslearen lekutik ahalik eta hurbilen; elkarlana bultzatzeko taldekatze inklusiboak; testu idatzian oinarritutako irakaskuntzaren alternatiba; argibideak sekuentzian, ikasleei irakurriz eta ahozko eta ikusizko informazioa aldi berean emanez; denbora gehiago ematea eta denboraz abisatzea noiz irakurriko duen gelan ozenki, momentu horretan testu laburrak irakurriz; ikusizko plangintzak erabiltzea (ordutegiak, agendak); “gainikastea”; arbelean idaztekotan data eta hitz solteak; ariketen zuzenketari buruz pertsonalki hitz egin eta idazlana ez zuzendu sistematikoki, lantzen ari diren akatsak zuzenduz; jarduerak ez dira mugatu behar, zama zaindu behar da.

Ebaluazio prozedurak: Ebaluazioa ikasleen ezaugarrietara egokitu egindako aurrerapenak ikusteko; erantzunen edukia balioestea ortografiaz eta testuaren konposizioaz gain; probak idatziz nahiz ahoz egitea; test motakoak; idatzizko azterketaren formatua zaintzea letra-motarekin; galderak zailtasunen arabera ordenatzea; azterketako idatzizko materiala grafikoak eta irudiz osatzea; azterketa egiteko denbora malgua.

Emoziozko eta gizarteko alderdiak: Bere arazoa ezagutzen dugula eta lagundu behar diogula erakutsi; bere lanaren indarguneak azpimarratu; irudimena ez mugatu; lana antolatzen lagundu; beste ardurak eman gelan; tutoretzan ikasleekin eta familiarekin gaia landu.

Berariazko programak: Trebakuntza fonologikoa izan behar du helburu eta irakurtzearekin lotutako ariketei heldu behar die. Programa aproposak: arbela dinamikoa, ClaroRead, DiTres, Lexia, MeMotiva, Tradislexia.

Arreta faltagatiko nahasmendua (hiperaktibitatearekin). AFN-H

Definizioa: Haurtzaroan hasten den eta funtseko hiru sintoma (arreta gabezia, hiperaktibitatea eta inpultsibitatea) biltzen dituen nahasmendua da.

Hezkuntza-erantzuna: Lehentasunez aldaketak izanen dira ikaslearentzako curriculum proposamenean, baina aldaketa horiek ez dira nabarmenak izanen gelako programazioaren aldean. Batez ere metodologia eta ebaluazio-prozedurazkoak izanen dira.

Metodologia: *Errefortzuak* modu iraunkorrean eman behar dira; daukan arazoa azaldu behar zaio onar dezan; konfiantza eta itxaropena transmititu behar zaizkio; pertsona eta ekintza bereiztea komeni da; iruzkin positiboak jasotzea onuragarria da; egindako ahaleginaren araberako errefortzua eman; presioa egitea ez da taktika ona eta errieta egin behar zaionean bakarka, irmoa, bizia, berehalakoa, neurrikoa eta zigortzen den portaerarekin zerikusia duena. *Autokontrola* bultzatu behar da hausnartzen irakatsiz; *arau eta muga* argiak ezarriko dira erraz ikusteko lekuetan; *jarraibideak eta eskakizunak* mailakatuta emanen dira; *irakasle-ikaslearen artean* askotan begiratu behar dira, lasai hitz egingen da, ardura batzuk haien eskura utziko dira eta zenbait egoeretan ez ikusiarena egingen da. *Eskolako lanek* ariketa fisikoa sustatuko dute, laburrak, egituratuak eta motibagarriak izango dira, informazioa antolatzeko teknikak irakatsiko zaie, jarduerak egiteko denbora mugatuko da beti ere besteei baino denbora gehixeago eskainiz, haren adierazkortasuna bultzatu behar da. Behar adina *atseden* ezarriko dira jardueren artean. *Baliabideek* ikasleen arreta erraztu behar dute, IKTak eta berariazko programak erabili daitezke.

Ebaluazio prozedurak: Ebaluaziorako proba mota desberdinak erabiliko dira eta hainbat alderdi hartuko dira kontuan. Probak egiteko denboraz abisatzea; ahozko eta idatzizko probak konbinatzea; test motako probak; proba zatitan bereiztea; gako hitzak nabarmentzea; denbora gehiago uztea; zalantzak argitzea; entregatu aurretik ariketa guztiak erantzun dituen gainbegiratzea; egindakoa eginahala baloratzea.

Mugimendu ezgaitasuna eta garun paralisia

Definizioa: Hezur-artikulazioen sistemaren, gihar-sistemaren edo/eta nerbio-sistemaren disfuntzioa dela eta, iragankorra edo iraunkorra den mugimenduzko asaldura bat duen pertsona. Egoera honek bere adinari dagozkion jardueretan nolabaiteko mugak ekarriko dizkio neurri ezberdinetan.

Hezkuntza-erantzuna: Gehienetan CEI eginen da ikasle hauekin.

Ikastetxeko egokitzapenak: Ikastetxearen alde batetik bestera inongo arazorik gabe ibili ahal izateko ingurune fisikoa bermatzea eta ikastetxeko curriculum proiektua kontuan hartzea.

Ikasgelako aldaketak: *Tutorearen egokitzea* prestakuntzaren bidez, ikasgelako haurren arteko elkarlana bultzatuz, material eta teknologia berriak erabiliz, eta familiarekin harreman erraza ezarriz. *Elementu materialak eta haien antolamendua* ere kontuan hartuko da. Ikasgelako alderdi fisikoa, altzariak eta baliabide didaktikoak, denboraren antolamendua. *Sarrera elementuak egokitzea* elementu material eta pertsonalekin.

Curriculum elementuak egokitzea:

- Ebaluazio prozedurak: Era askotako prozedura eta tresnak erabiltzea, egoera ezberdinak ebaluatzea eta ebaluazioari buruzko tresnak prestatzea. Ahozko laguntzak, laguntza fisiko edota materialak, debora malgutasuna eta ikasleen komunikazio-ahalmenetara egokitzea.
- Metodologia: Aurrez aurre eta begien parean hitz egin, erritmoa errespetatu; jarduerak pausu txitan zatitu; jarduera-ereduak aurkeztea; bi eskuak mahai gainean jarriz lana egitea; batzuetan garrantzi handiagoa eman lana egiteari; kontrol zefaliko gutxi duten haurren kasuan plano bertikala erabiltzea lanak aurkezteko orduan; haurrak alde batera edo bestera joateko joera badu gauzak kontrako aldean jarri; metodo fonetikoa erabili; hautemate arazoak dituzten ikasleekin tamaina ertaineko marrazkiak aurkeztu eta ikusmenaren eremuari dagokionez ongi kokatzea, koloreen kontrastea zainduz. Erreforzatzaileak erabiliko dira eta komunikazioa bermatzea, beharrezkoa bada komunikazio sistema gehigarri eta alternatiboekin.

- Jarduerak: Zailtasun maila ezberdineko jarduerak. Irteerak antolatzean haur guztiek egiteko moduko ibilbideak.
- Helburuak eta edukiak. Bestelako urritasunik ez badute, eta sarrera, ebaluazio prozedura eta metodologia elementuetan egokitzapenak egin badira, ez da ikasgelako programako helburu eta edukirik kendu behar, baina maiz egokituko dira. Zikloei malgutasuna emanen zaie, helburuak eta edukiak sekuentziatu daitezke oinarritzotzat hartzen diren zenbait helburu eta edukiri lehentasuna emanaz eta aurrebaldintzei buruzko helburuak sartuz. Ulertzeko gauza dena eta adierazteko gauza dena ezberdindu behar dira.

Ikusmen ezgaitasuna

Definizioa: Ikusmen urritasuna duen pertsona bi begietan 0,1 edo gutxiagoko ikusmen zorrozatasuna duen edo/eta 10 graduko edo gutxiagoko ikus-eremua duen pertsona da.

Hezkuntza-erantzuna: Ohikoena curriculuma aberastea da.

Ikastetxeko egokitzapena: Seinalizazioak ipini, oztopoak kendu, hezkuntza elkarteak sentsibilizatu eta ikastetxeko curriculum proiektuari ikuspegi inklusiboa eman.

Ikasgelako egokitzapenak: Tutoreak formakuntza jasoko du, familien harremanak erraztuko ditu eta teknologia berrietan trebatuko da. Elementu materialei dagokionez, argiztapen naturala eta artifiziala, ikasleak ikasgelan duen kokapena, objektuen kokapena eta ikasleak beren eskura dituzten ikusmeneko seinaleak.

Sarrera elementuak: Ikusmen ezgaitasun larria duten ikasleekin sistema arruntak erabiliko dira aukera dagoen guztietan, bestela, alternatiba gisa, liburu digitala, Braillean testuliburuak eta hitzezko Braille. Ikusmen-aztarnak dituzten ikasleekin laguntza ez-optikoak erabiliko dira (atrila, flexoa) eta laguntza optikoak (lupak, telelupak, pantailak handitzekoak). Curriculum arlo ezberdinei dagokionez, hizkuntzan kontraste handiko irudiak erabiliko dira; matematikatan abakoa, hitzezko kalkulatuzailea eta irudi geometrikoak; ingurunean hiru dimentsioko kopiak eta erliebedun mapak; plastikan marrazki erliebedunak egiteko plastikozko orriak, usaia duten materialak eta egitura ezberdineko materialak; gorputz-hezkuntzan kirola egiteko material soinuduna eta korrika egiteko ikaskide gida. Horrez gain, tifoteknologia eta IKTak erabiliko dira, hala

nola, MEGA softwarea, Braille'n Speak, ordenagailua Jawns programarekin, Supernova programa, GUIDE eta Microsoft Accesibility.

Metodologia: Lehenengo ilaran kokatzea, hitzez adierazi idatzitakoa, idatzizko kodea eskuratu ahal izateko laguntzak, inprimatutako materiala ematea eta sistema alternatiboa behar bada Braille erabiltzea. Inprimatutako materialek karaktereak handiagoak izanen dituzte, behar den testuaren fotokopia handitu daiteke eta orrialde-markatzaileak erabili daitezke lerroak jarraitzeko. Kontuan izan behar da inprimatutako karaktereen kalitatearekin eta kantitatearekin.

Helburuak eta edukiak: eguneroko bizitzako orientazioa, mugikortasuna eta trebetasunak; gaitasun soziala eta tekniken ikaskuntza eta material espezifikoaren maneiatzea.

Adimen ezgaitasuna

Definizioa: Adimen funtzionamenduan zein egokitze jokaeran, muga esanguratsuak dituen urritasuna. Egokitzeko gaitasun kontzeptualezkoetan, sozialetan eta praktikoetan adierazitako da.

Hezkuntza-erantzuna: Sarrera elementuei eta oinarrizko elementuei dagokiona.

Sarrera elementuak: giza baliabideak eta baliabide materialak.

Metodologia: eredu ekologikoa eta funtzionala bultzatuko da, zentzumen anitzeko estimulazioaren eredu landuko da, komunikazio- eta gizarte-trebetasunen irakaskuntza bermatuko da eta jokabide arazodunen eta desafiatzaileen tratamendua. Ikaskuntzaren orokortzea erraztuko da inbentario ekologikoetatik abiatuz, hau da, ikasleen premien arabera interesatzen zaigun ingurunea zehatzea eta trebetasunak zehaztea. Horrez gain, bere gaitasun-mailari egokitutako jarduerak planteatuko dira, errealizazio positiboa indartuko da, ikaskuntza funtzionalak planteatuko dira, beti ere ikasteko duen estiloari jarraituz eta informazioa eskuratzeko kanal bat baino gehiago erabiliz behar duen laguntza ematea. Jokabideen modelaketa, dramatizazioa eta problemen ebazpenenean aritzea.

Helburuak eta edukiak: Etapako helburu orokorrak erreferente gisa hartuko dira. Kasu gehienetan aurreko zikloko ei dagozkien helburuak landu beharko dira, baina ikaslearen

adin kronologikoari dagozkion interesetara eta premietara egokitutako estrategiak eta materialak erabiliz. Edukiak eta helburuak adierazgarriak eta funtzionalak izan behar dira. Egokitzapen soziala eta autonomia kontuan hartuko dira.

Autismoaren espektroko nahasmenduak

Definizioa: Elkarrekiko interakzio sozialaren garapenean, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioan eta interes eta portaeretan alterazioak ageri direnean mintzo gara autismoaren espektroko nahasmenduak.

Hezkuntza-erantzuna: Sozializazioa, komunikazioa eta ikaskuntza bermatzea.

Ikaskuntza: Irakasleei prestaketa eman. Familien inplikazioa bultzatu, jokabide-arazoen tratamendua landu eta gizarte sareak ezartzen lagundu. Metodologiari dagokionez, arreta indibidualizatua, ikusmen kanalaren erabilpena, IKTen erabilera (e-mintza), TEACCH, jardueren funtzionaltasuna, ikaskuntza-egoera egituratuak, berdinen arteko tutoretza eta ikaskuntza kooperatiboa.

Down sindromea

Definizioa: Arazo fisiko eta psikikoen multzoa da, jaiotzatik eta bizitza osoan zehar garatzen direnak.

Hezkuntza-erantzuna: Goiztiarra izan behar da, harreman sozialak bultzatu behar ditu eta eduki funtzionalak indartuko dira. Ikasleak denbora librekoa behar du, ume bat da. Hezitzaileek jarrera egokia izan behar dute, ez dute gehiegi babestuko eta bere erritmoa errespetatuko dute. Haurrari begitara begiratu behar zaio eta errutinak beharrezkoak dira. Jarduerak motzak, dakienetik abiatzen direnak eta errepikakorrak. Curriculum egokitzapena eginen da ikasleak dituen ezagutza eta gaitasunetan oinarrituz.

Gaindotazioa

Definizioa: Ondorengo lau eremu hauetan trebeak diren edo gailentzen diren ikasleak dute gaidotazioa: eremu intelektualean (KI 130tik gora), emozionalean, fisikoan eta sozialean.

Hezkuntza-erantzuna: Ez du sentitu behar besteek baino gehiago dakiela. Hiru modutan ematen zaie erantzuna ikasle hauei:

- Bizkortze-programak: Gehienez bi urte aurreratu daitezke ikasle hauek. Gomendagarriena LHn maila bat aurreratzea eta DBHn beste maila bat.
- Taldekatze berezia eskatzen duten programak.
- Aberaste-programak. Eskoletan hau izaten da aukerarik egokiena.

Ikasle hauekin ezinbestekoa da elkarlana, eskolan egiten dena etxean jarraitu behar delako. Aipatzekoa da haurra den bezala onartu behar dugula presionatu gabe.

Mutismo selektiboa

Definizioa: Haur batzuek ingurune sozial ezezagun batean edota pertsona ezezagunekin ahoz komunikatzeko duten zailtasunari deritzo. Haurrak badu bere adinari dagokion gaitasun linguistiko eta komunikatiboa, baina hala ere testuinguru zehatz batzuetan ez du komunikatzeko gaitasunik adierazten.

Hezkuntza-erantzuna: Ikasgelan konfiantza, onarpen eta errespetuzko giroa sortzen saiatu behar gara. Eredu linguistiko egokiak eskaini behar zaizkie. Grabaketak baliogarriak izanen dira, ikasleak beste testuinguru batzuetan hitz egiteko gai direla ikusiko duelako eta horrela pixkanaka hizkuntza testuinguru gehiagotara zabalduko duelako.